2026-11-13 OSTIRALA
36. ZENBAKIA

DEBABARRENEKO ASTEKARIA
BARRENA.EUS / TOKIKOM.EUS

Barrena

Kaleak bete egin dira etxebizitzen prezio garestia salatzeko

Jendetza handia batu da euskal gehiengo sindikalak eta etxebizitza sindikatuek antolatutako greba orokorraren baitan egin diren mobilizazioetan; etxebizitza eskubidea bermatzeko eta espekulazioa amaitzeko exijitu dute manifestariek, eta "politika ausartak" eskatu / 2-3



Untzaga plaza, jendez gainezka, asteazken eguerdian Eibarren egin zen bailara mailako manifestazioaren amaieran. EGOITZ UNAMUNO

JAIAK

Gaztañerre Azoka eta San Martin Azoka egingo dituzte bihar Soraluzen eta Ermuan; biak ala biak, parte-hartze handiko ospakizunak

Sasoiko jenero onena, gozo-gauzak, inguruko baserrietako abereak eta artisau-lanak izango dira, besteak beste, bi azoketan, eta urtetik urtera estimu handiagoa duten baba-janak ere egingo dituzte bi herrietan, egun osoko egitarauaren baitan. Dantza eta musika gehituta, jai betea izango dute / 11-15-16



Trikitilariak, azokan. EUSKAL BIRUSA





Eibarren asteazken eguerdian egin zuten manifestazioaren irudi bat. EGOITZ UNAMUNO

GREBA OROKORRA

Aspaldiko protesta jendetsuenak

Etxebizitza eskubidea bermatzeko espekulazioa amaitzea derrigorra delako mezua zabaldu zuten asteazkenean greba orokorrarekin bat egin zuten milaka herritarrek, eta "neurri errealak eta erradikalak" exijitu zituzten etxebizitzaren krisiari aurre egiteko. Aldarrikapen horren aterkipean, aspaldiko jendetza handiena batu zen, esate baterako, Eibarren eguerdian egin zen bailarako manifestazioan, eta jendetsuak izan ziren, baita ere, Debabarreneko herrietan bereziki arratsalde-iluntzez egin ziren elkarretaratzeak

Ainara Argoitia DEBABARRENA

Milaka lagunek egin zuten bat etxebizitza eskubidea bermatzearen alde eta espekulazioaren kontra deitutako greba orokorrarekin, asteazkenean, eta aspaldiko jendetsuenak izan ziren mobilizazioak; bereziki, bailara mailan eta hiriburuetan eguerdian egindakoak. Eibarkoa, kasu. Deitzaileen arabera, 8.000 lagun batu ziren Eibarko kaleetan aldarri beraren aterkipean, sindikatuek egindako deiari erantzunez. Debabarrendarrek Unibertsitate Laboraletik behera eta Debagoiendarrek Urkizutik gora osatutako bi zutabeak Untzaga plazan batu zirenean abiatu zen manifestazioa, 12:00etan, eta, bidean, etxebizitza eskubidea bermatzeko eta espekulazioa amaitzeko aldarriak egin zituzten manifestariek, kale ertzetatik tarteka bengala gorriekin argi egiten zieten bitartean. *Hemen lan egin, hemen erabaki; Etxeak bizitzeko, ez espekulatzeko; Espekulatzaileak, espropiatu; Erroldarik gabe, izaterik ez; Etxegabetzeak gelditu;* eta *Zuen aberastasuna, gure miseria ez* izan ziren gehien entzun ziren oihuak.

Jaurlaritzaren Soziometroak aurreratu zuen, joan den astean, zein den Gipuzkoako, Arabako eta Bizkaiko herritarren gehiengoaren kezka nagusia: etxebizitza. Urriaren 20tik 23ra bitartean EAEko 3.485 laguni egindako inkestak erakutsi du herritarren %72k etxebizitza dutela kezka nagusi. Are, azkeneko neurketatik, 12 puntu egin du gora etxebizitzarekiko kezkak, eta, beraz, ez da harritzekoa haserreak ere gora egin izana. Sindikatuek erakunde publikoak, instituzioetan ardura duten alderdi politikoak, patronala eta kapitalismoa egin dituzte langile klaseak bizi duen prekarietatearen erantzule, eta "politika ausartak" eskatu zituzten protestetan, "espekulazioa eragotzi, aberastasuna banatu eta herritar guztiek etxebizitza izan dezaten ziurtatzeko".

Ezohiko jarduna

Goiz-goizetik hasi zen mugimendua kalean asteazkenean. Debarroko ELA eta LAB sindikatuek jakinarazi zutenez, gutxienez eskualdeko 23 enpresak egin zuten bat grebarekin, eta deialdiak jarraipen handia izan zuen, bereziki, hezkuntzan eta zerbitzu publikoetan. Goizeko lehen orduetan piketeak ibili ziren eskualdeko hainbat herritan, etxebizitza krisiari erantzuteko "bide bakarra borroka" dela gogoraraziz. Errepide nagusiak eta industrialdeetarako sarrerak trabatu zituzten eskualdeko zenbait herritan, eta eskuorriak eta afixak pegatzen jardun zuten herrigunetan. Eskoletan, osasungintzan eta garraio publikoan, berriz, gutxieneko zerbitzuak bermatu zituzten, eta merkataritzan eta ostalaritzan ere ez zen ohiko jardunik izan, nahiz eta herrien arabera jarraipena handiagoa edo txikiagoa izan zuen grebak. Hala ere, nabarmentzekoa da goizean zabaldu zutenetako askok itxi egin zituztela beren negozioak, mobilizizazioak izan ziren tartean. Eta goizean nola, hala batu zen jendea arratsalde-iluntzean eskualdeko herri gehienetan egin ziren elkarretaratzeetara ere. Hona hemen asteazkeneko greba orokorrak utzi zituen argazki batzuk.





Gazte ugari irten ziren kalera, prekaritatea eta emantzipatzeko dituzten arazoak salatzera. GARAZI MENDIETA



Soraluzen eguazten eguerdian egin zuten elkarretaratzea. UBANE MADERA ZANGITU



Deban asteazken iluntzean egin zuten manifestazioaren une bat. NEREA BEDIALAUNETA ALKORTA



Jende oldea irten zen kalera Ermuan ere, etxebizitza eskubidearen alde. ANDER GOMEZ



Elgoibarren, Maalako parkean egindako elkarretaratzea. ASIER ORBEA

NIRE USTEZ

Etxebizitza eskubidea bermatzeko, espekulazioari ez!



ARKAITZ URANGA
ITZULTZAILEA

Gaurkoan sekretu txiki bat argitara ekarriko dut: atal hauetan irakurtzen dituzuen hitzak aldez aurretik idatzita daude. Logikoa da, noski; baina horrek esan nahi du idazten dugunok eta irakurtzen duzuenok une desberdinetan egoten garela hitzon aurrean. Eta, aste honetan gure artean dagoen alderik nabarmenena, akaso, izango da azaroaren 11ko greba orokorra igaro dela zuentzat, eta niretzat oraindik ez dela iritsi.

Langile klasearen eskutik datorren iraultzak soilik erantzun diezaieke langile klasearen beharrei

Honezkero jakitun izango zarete, baina uste dut ezinbestekoa dela, azaroaren 11 igarota ere, grebaren hiru aldarri nagusiak azpimarratzea: espekulatzaileak espropiatu, espekulazioa debekatu eta etxebizitza langileon beharren arabera antolatu. Zuek hainbatetan entzun izango zenituzten hitz horiek, baina greba eguna igaro izanak ez du esan nahi atzean geratu direnik. Kontrara: greba egunak hiru aldarri horiek gizarteratzea du helburu, eta horiek jomuga hartuta lanean hasteko unea markatzen du. Etxebizitzaren problematikak badu soluzioa, eta modu argi eta garbian seinalatu behar da haren erroa: errentismoa eta espekulazioa. Hiru jomuga nagusi horien bidez lortuko dugu ezinegon geroz eta astunago honi amaiera jartzea.

Urgentziazkoa da langile klaseak auzi honen inguruan agentzia hartzea, eta mahai gainean kolpe sendo bat ematea errentismoaren eta espekulazioaren aurka. Horregatik, eta bista etorkizunera botata, pentsatu nahi dut azaroaren 11n milaka eta milaka pertsona mobilizatuko zirela, grebaren aldarriak argi eta garbi gizarteratuko zirela, eta langile klaseak gizartean duen indar eta eragina antzemango zela. Helburua argia da, bai eta helburu hori lortzeko hartu beharreko neurriak ere.

Etxebizitzaren negozio espekulatiboa merkatu errentistak eta bere aurpegia zuritzea besterik bilatzen ez duen politika instituzionalak sostengatzen dute. Eredu hori erabat bateraezina da etxebizitzaren eskubide izaerarekin, eta horregatik, langile klasearen eskutik datorren iraultzak soilik erantzun diezaieke langile klasearen beharrei. Balio dezala grebak hori gizarteratzeko.

GUTUNAK

Aupa 'Maputxe'!

Z.A.
ELGOIBAR

Leioako Artaza parkean (Bizkaia) Lamiakoko itsasadar azpiko errepidea eraikitzeko lanak egiten hasiko dira. Oraindik ez dute garbi noiz hasiko diren lanak. Zundaketak egiten ibili dira azken hilabeteetan, eta edonoiz hasi litezke. Lanak egin bitartean parkearen zati bat suntsituko dute, eta eraikuntza enpresek Artatza-Itzubaltzetako institutuko jolastokiaren erdia okupatuko dute. Artatza parkea inguruko auzoen *birika berdea* da, eta bertan dauden dozenaka zuhaitz moztuko dituzte lanak egin ahal izateko. Proiektu handia da, eta gutxienez zazpi urte beharko dituzte lanak amaitzeko.

Egoera hori salatzeko, *Maputxe* izeneko ekintzailea behin baino gehiagotan igo da parkeko zuhaitzetara. Azkenengoz urriaren 24an egin zen manifestazio egunean igo zen, eta, momentuz –azaroaren 10a gaur–, bertan jarraitzen du. Bi aste pasata daramatza bertan, eta proiektua bertan behera geratu arte ez dela jaitsiko adierazi du *Maputxe*-k.

Subflubialari Ez Plataformak deituta, herritarrek elkarretaratzea egin dute *Maputxe* igota dagoen zuhaitzaren azpian, elkartasuna adierazteko eta babesa emateko. Aldarrikapenak hauek dira: azpiegiturak ez du lortuko trafikoan dauden arazoak konpontzea –Bizkaiko Foru Aldundiak ere onartu du horiri–, erakartze efektua izango duelako, eta proiektua egiteko jarriko dituzten 600 milioi euroak garraio publikoa indartzeko erabiltzeko eskatu dute.

Eskerrik asko, *Maputxe,* ingurumenaren eta herritarren defentsaren aldeko ekintza solidarioa egiteagatik.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). BARRENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Aita Agirre Kulturgunea 3-3, 20870 Elgoibar / *barrena@barrena.eus*

Barrena
DEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea
Barrena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Aita Agirre plaza, 3
20870 Elgoibar
barrena@barrena.eus

Lehendakaria
Gaizka Azkarate.
Zuzendari nagusia
Egoitz Unamuno.
Eduki arduraduna
Ainara Argoitia.

Erredakzio batzordea
Ainara Argoitia, Ubane Madera, Ainhoa Andonegi, Ander Gomez Izaro Aulestiarte.
Kazetariak
Ainara Argoitia, Ainhoa Andonegi, Ander Gomez, Asier Orbea, Egoitz Unamuno, Garazi Mendieta, Izaro Aulestiarte, Nerea Bedialauneta, Ubane Madera.
Diseinu arduraduna
Oier Larreategi.
Zuzentzailea
Sergio Azkarate.
Maketazioa
Zaloa Arnaiz, Oier Larreategi.
Publizitatea
Leire Rubio.

HARPIDETZA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 16 26
harpidetza@barrena.eus

PUBLIZITATEA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 37 04
publi@barrena.eus

DEBAKO EGOITZA
Deba 20820
Ifar Kalea 12, behea
943 19 13 83

ELGOIBARKO EGOITZA
Elgoibar 20870
Aita Agirre plaza, 3
943 74 41 12

ERMUKO EGOITZA
Ermua 48260
Erdikokale 2, 1
943 17 93 50

SORALUZEKO EGOITZA
Soraluze 20590
Errabal 15, 1
943 75 13 04

Lege Gordailua: LG D 993-2025
ISSN: 3101-2647
Tirada: 10.500 ale
Inprimategia: Zeroa Multimedia

BARRENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetan kolaboratzaileek emandako iritzien gaineko erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Debako Udala · Elgoibarko Udala · Ermuko Udala · Mallabiko Udala · Mendaroko Udala · Mutrikuko Udala · Soraluzeko Udala · Debabarreneko Garapen Agentzia

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

GIPUZKOA Foru Aldundia
Babestutako hedabidea

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

"Ohorea izan da aktore handi hauen ondoan lan egitea, asko ikasi dut"

ZUHAITZ GURRUTXAGA 'SUPER MANTEROLA' TELESAILEKO AKTOREA

Fikziozko familia-denda bateko istorioak jasotzen dituen telesaila da 'Super Manterola', eta Zuhaitz Gurrutxaga da aktoreetako bat



Zuhaitz Gurrutxaga, Super Manterola aurrean. LAGATAKOA

Ainhoa Andonegi

ETB1en eta Primeran plataforma digitalean ikusi daiteke *Super Manterola* telesaila. Anjel Alkain, Iker Galartza eta Aitziber Garmendia dira protagonista nagusiak, eta haien ondoan aritu da Zuhaitz Gurrutxaga ere.

Nola heldu zitzaizun *Super Manterola*-n parte hartzeko aukera?

Iker Galartzak deitu zidan, paper baterako nigan pentsatu zutela esanez. Antzerkigintzan hamar bat urte daramatzat, baina telebistarako sekula lanik egin gabe nengoen, eta sorpresa izan zen. Izen handiko aktoreak ziren, eta haien ondoan nigandik espero zuten maila ez emateak errespetua sortzen zidan. Ikerrek ezagutzen nau, eta hark badaki zeintzuk diren nire gaitasunak eta gabeziak. Beraz, horrek lasaitu egiten ninduen apur bat. Babes osoa eman zidan, eta eskertzekoa da.

Zein da zure papera telesailean?

Super Manterola herri txiki bateko supermerkatu familiarra da, bizitza guztian han egon dena. Nire izena telesailean Jagoba da, eta, hain justu, Super Manterolaren aurrean zabaldu berri duten Merkedona establezimendu handiko gerentea naiz. Supermerkatu txiki horren zuzeneko konpetentzia naiz, eta Mantelorakoek amorru puntua diote Jagobari. Gertatzen dena da nire pertsonaia jatorra dela. Modu onean joaten naiz beti, hitz jatorrekin... eta horrek amorru handiagoa sortzen die.

Nolako esperientzia izan da?

New Yorketik zuzenean iritsi nintzen Azpeitira, lo apur bat eginda. Ez nuen berotzeko aukerarik ere izan! Jendea agurtu, makillatu egin ninduten, eta nire esaldia botatzera! Harritu ninduena izan zen ez zidatela errepikatzeko ere eskatu! "Horren ona ere ez naiz ba izango!", pentsatzen nuen; eta kontua zen denbora justuan zegoela grabaziorako. Oso gustura egon nintzen grabazioan, eta emaitza gustatu egin zait. Pozik geratu naiz. Bigarren denboraldi bat balego, gustura hartuko nuke parte.

> **"Oso gustura egon nintzen grabazioan, eta emaitza ikusi dudanean ere gustatu zait"**

Galartza ezaguna zenuen, baina Alkain eta Garmendia batu dira oraingoan. Nolakoa izan da haiekin lan egitea?

Aitziber ezagutzen dut, baina ez dut sekula harekin lanik egin. Lehenengo eszena harekin egin behar nuen, eta oso ondo joan zen; oso esku-zabala da, eta izugarri lagundu zidan. Eta Alkainekin ere hau izan da nire lehenengo hartu-emana, baina kontatu nion hari ere anekdota bat: sasoi batean, *Tumatxak* programa aurkezten nuen ETBn, eta Anjel Alkainek imitatu egiten ninduen berak zeukan beste programa baten. Niretzat sekulakoa zen, nor eta Anjel Alkain ni imitatzen! Aitak ere esaten zidan: "Hi, Alkainek imitatzen ba hau, zeozer izango haiz, ala?". Nire aitak ere balio handia ematen zion horri, eta orain harekin lan egitea izugarria izan da. Ainere Tolosa, Iñake Irastorza eta beste batzuk ere badaude. Ohorea izan da aktore handi horien ondoan lan egitea, eta asko ikasi dut.

New York eta Donostia artean bizi zara orain. Zertan diharduzu?

Euskal Herrira joaten naizenean, antzerkian eta bakarrizketak egiten aritzen naiz. Nueva Yorken denbora libre asko izaten dut, eta hainbat ate jo ditut. Bakarrizketa gaztelaniaz egiten dut Queens auzoko areto txiki batean, eta nahiko pozik nago izan duen harrerarekin. Horrez gain, kontatzen dudan istorioa osasun mentalari eta futbolari lotuta dagoenez, saiatzen nabil eskoletan eta kirol taldeetan hitzaldiak egiten.

Bakarrizketa ingelesez estreinatu duzu orain; ez zara makala!

> **"Bigarren denboraldi bat balego, gustura hartuko nuke parte berriz"**

Ez daukat ingeles maila onik, eta elkarrizketa bat ingelesez izateko gaitasunik ez daukat, baina memoria oso ona daukat. Hortaz, lan handia izan bada ere, bakarrizketa buruz ikasteko gai izan naiz. Probaldi moduko bat egin nuen Donostian. Miguel Arozena elgoibartarrak Ikerbasquen lan egiten du, eta han leku askotako ikertzaileak dituzte. Galdetu zidan ea bakarrizketa ingelesez ea egingo nukeen, eta animatu egin nintzen. Orain New Yorken egin dut, eta erronka polita izan da. Helburu nagusia zen ikusleek istorioa ulertzea eta kontakizunarekin konektatzea, eta lortu egin dut; beraz, pozik geratu naiz. Badaukat zer hobetu, baina gogotsu nago hurrengo emanaldietarako.

Barrena
DEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA
943 743 704
688 769 657
Jarri ezazu zure publizitatea BARRENA astekarian edo www.barrena.eus webgunean

LAGUNAK
colchonería textil hogar
Finantzatu zure koltxoia
Lagunak Colchoneria Textil Hogarrek Laboral Kutxarekin lankidetzan dihardu, saltokietako erosketa finantzatuz.
- Kuota erosoetan ordaintzea
- Bankuz aldatu gabe
- Modu erraz eta seguruan
- Ia paperik gabe
- LABORAL Kutxaren bezero izan edo ez
Etorri eta informatu zaitez!

San Roke kalea, 20 - ELGOIBAR - 943 744 457 / 685 756 978
www.textillagunak.com

EXPRESS ESKAINTZAK!
AEG TE7G90BOB
ARROPA-LEHORGAILUA
569 €
A C
- Karga 9 kg
- Bero-ponpa
- Inverter motorra
- MixDry
- Flitro Ease Clean

MILARBIRE
Ubitarte, 11 - 943 741 487
bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

NIRE USTEZ

Denak ez du balio



IKER LAUZIRIKA
ZUZENBIDE
DOKTOREGAIA

"Euskadi desberdina dela" diote politikariek. Hemen ez omen dago Espainiako lokatzik. Ez dugu Espainiako zaratarik. Berri txarrak. Azken asteetako gertakariek pikutara bidali dute ustezko bakea.

Urrian izan genuen lehenengo pasartea, Aratz eta Malen terrorismoagatik atxilotu zituztenean. Zantzu guztien arabera muntaia poliziala badirudi ere, komunikabide batzuek eta zenbait adierazpenek borroka armatua itzultzeko arriskua zegoela iradoki zuten.

Bigarren pasartea Vito Quilesen Bilboko deialdiaren osteko liskarrekin etorri zen. Agitatzaile ultraeskuindarraren aurkako mobilizazioen antolatzaileek argi utzi zuten ez zutela horrekin harremanik. Berdin izan zitzaien batzuei. Gertakariek ezker eragileen biolentzia erakusten omen zuten.

Azkenik, aurreko astean, EH Bilduk Guardia Zibila euskal polizia baino nahiago zuela zioen kartel bat zabaldu zuen EGIk. Bertan, ezker abertzalea "berriz ere" Intxaurrondora joan dela zioen, bertako kuartelean jazotako torturez barre eginez. Torturatuen aurkako gorroto diskurtso argia, Europako Kontseiluko irizpideak kontuan hartzen baditugu.

Benetan baldin bagara Espainiarekiko desberdinak, orain da erakusteko unea. Erakutsi behar dugu ETAren kartak ez duela balio gure joko politikoan. Kaleko mobilizazioen legitimitatea babestu behar dugu beldurraren kanpainaren aurka. Argi izan behar dugu gorroto diskurtsoak ez direla onargarriak, eta torturatuek errespetua merezi dutela.

Nolabaiteko herri bat osatu nahi badugu, ozen esan behar dugu: denak ez du balio.

KLIK

Behiak



NAGORE CANCIO
ARGAZKILARIA



Larrean bakean, eguzki epelaren azpian, abereen hats lasaiak mendia besarkatzen du.

SEMAFOROA

Horma margotu egin digute



"Duela egun batzuk, gure etxeko horma batean grafiti hori margotu ziguten. Gizarte honetan bizi izateko, elkar errespetatzea oinarrizkoa da, eta ekintza hori errespetu horretatik oso urrun dago. Etxea zaintzeko lana hartzen dugu, eta horrelako ekintzak eraso bat direla salatu nahi dugu. Ez dadila errepikatu, mesedez".

Kaka jaso egin behar da



"Badirudi norbaitek gure dendako ataria bere txakurraren komun ofizialtzat hartu duela, hiru egunez jarraian *opari* hori topatu baitugu denda zabaltzera joan garenean. Kalea garbi mantentzea guztion ardura da; beraz, eskertuko genuke norberaren txakur-kakak jasotzea. Eskerrik asko".

Kalitatezko garraio publikoa

"Gure semea Leioan hasi da unibertsitatean, eta ez sinistekoa da hara joateko behar duen denbora. Gu ere han ikasitakoak gara, orain dela 30 bat urte, eta, orduan, enpresa pribatu baten bitartez joaten ginen unibertsitatera. Dena dela, Bilbora, gutxienez, zuzenean geneukan autobusa Elgoibartik. Hobera beharrean, okerrera egin dugu, eta nola, gainera!".

elgoibar@barrena.eus / 688 65 56 58

Autobus-geltoki bi jarri dituzte Arriaga auzoan N-634 errepidean

Ainhoa Andonegi

Gipuzkoako Foru Aldundiak bi autobus-geraleku egokitu ditu Arriaga auzoan, N-634 errepidean. Errepidearen noranzko bakoitzean geltoki bana jarri dute. Arduradunek adierazi dute esku-hartzeari esker espazio "seguruagoa eta irisgarriagoa" dela gaur egun. Izan ere, trafiko handiko gunea da, industrialde eta enpresa handiak daude inguru hartan, eta, A8 autobiderako sarbidea ere han dagoenez, eguneko ordu jakin batzuetan auto ugari pilatzen da.



Geltoki berria. ALDUNDIA

Autobus geltoki berriak egiteko lanak irailean hasi zituzten, eta 212.746,41 euroko aurrekontua izan dute. Geltokiak egokitzeaz gain, oinezkoentzako bidegurutzea ere jarri dute, semaforoekin. Horri esker, autobuseko erabiltzaileek errepidea segurtasunez zeharkatu ahal izango dutela adierazi dute Aldundiko ordezkariek.

Institutuko ikasleen errifaren zozketako zenbakiak

Elgoibar BHIko DBH4ko ikasleek 2027ko ekainean egiteko asmoa duten ikasturte bukaerako bidaiaren finantzaketarako laguntza gisa urrirako antolatu zituzten zozketetako zenbaki sarituak hauexek izan dira –ONCEren urriaren 2ko, 9ko, 16ko eta 23ko zozketetan egokitutako zenbakien azken lau zifrekin bat datozenak–: 1.693, 8.408, 2.532 eta 1.146. Zenbaki horietako bakoitzak Elgoibarko zein Mendaroko denda eta tabernetan gastua egiteko 200 euroko erosketa-txartelak ditu sari moduan. Sariak txarteletan adierazita datozen establezimenduetara bertaratuta jaso ditzake zenbaki sarituren baten jabe denak.

Nuala elkartearen informazio mahaia, bihar, Lekuederren

Abenduaren 3an, Desgaitasuna duten Pertsonen Nazioarteko Eguna da, eta, horren harira, informazio-mahaia jarriko du Nuala elkarteak, bihar, Lekuederren. 11:00etatik 14:00etara egongo dira –euria egiten badu, Aita Agirreko arkupean–, eta goiz osoko egitaraua antolatu dute: elkartearen jardunari eta ematen dituzten zerbitzuei buruzko informazio-puntua, umeentzako jolasak eta produktuen salmenta izango dira. Helburua da desgaitasuna duten pertsonen egunerokotasuna ikusaraztea eta herritarrak sentsibilizatzea. Udalak ere bat egin du ekitaldiarekin, eta, hain zuzen, herritarrei parte hartzera dei egin die.

Altzolako iturburuaren 250. urteurrena ospatu dute

Besteak beste, urteurrenari lotutako eskultura eta liburua aurkeztu dituzte

A.A.

Altzolako uraren iturburua aurkitu zutenetik 250 urte pasatu dira, eta joan den barikuan egin zuten urteurreneko ospakizun ofiziala. Alzola Basque Water enpresako nagusi Patxi Casalek gidatu zuen saioa. Bideo bat proiektatu zuten lehenengo, 2026tik 1776rako atzerako bidaia islatzen zuena, eta han jaso zuten Altzolaren historia, gaur egunetik iturburuaren aurkikuntzara artekoa. Ondoren, Ana Isabel Escriche idazle katalanak Altzolako bainuetxera etortzen ziren 25 emakumeri eskainitako liburua aurkeztu zuen. Era berean, Xabier Artolozaga artista plentziarrak *Garbi sirena* eskulturaren sortze-prozesua eta emaitza bera erakutsi zituen. Eta horixe izan zen, hain justu ere, omenduei eman zieten oroigarria. Altzolako iturburuaren zaindariei egin zieten aitortza, bai babesle izan direnei eta baita langileei ere.



Aita Agirren bildutakoak; tartean, Kepa Junkera musikaria. A.A.



Urte bukaerarako amaituko dituzte Errezabaleko lurra egonkortzeko lanak

Etxeetan kalteak dituzten auzotarrek kezka azaldu diete udaleko arduradunei

Ainhoa Andonegi

Errezabal egoitzaren obrari buruzko informazio-bilera egin zuen Udalak martitzenean Urazandiko bizilagunekin. Arduradunek emandako azalpenen arabera, egonkortze-lanak "ondo" doaz, eta, gaur-gaurkoz, Errezabaleko lurra obra hasi zenean baino egonkorragoa da. Datu batzuk eman zituzten hori ziurtatzeko: obra hasi aurretik lursailaren egonkortasun-koefizientea 1,05ekoa zela esan zuten, eta gaur, 1,30ekoa. Helburua 1,50era iristea zela gaineratu zuten.

Egonkortze-lanak urte bukaerarako amaitzea aurreikusten dute, eta, ondoren, zimentazio-lanak hasiko dituzte. Eraikina eta estruktura jasotzen, bestalde, 2027aren amaieran hasiko dira, eta 2028an amaituko dituzte lanak. Emandako informazioaren arabera, proiektua hasierako berbera da, eta aldatu den bakarra sostengatzeko modua izan da.

Kezka

Auzotar talde bat "kezkatuta eta haserre" azaldu zen etxeetan eta edifizioetan agertu diren arrakalekin. Kalte horiek nork konpondu eta ordainduko dituen galdetu zuten; obra hasi aurretik horrelakorik ez zeukatela esanez. Udalak esan zien arrakalen protokoloa duela horretarako; hiru protokolo jaso direla orain arte, eta beste bat ere egingo dutela. Lasaitasun mezua zabaldu zuen Udalak; esan zuen segurtasun neurri guztiak hartzen ari direla, baina bizilagunak urduri daude, obraren ondorioz auzoan eta, bereziki, etxebizitzetan gertatzen ari diren mugimenduekin.



Jubilatuen Biltokia bete egin zen. A.A.

Magosto Eguna ospatuko dute bihar Maalako parkean

A.A.

Elgoibarko Galiza Etxeak antolatuta, Magosto jaia egingo dute bihar goizean Maalako parkean. Galizian erro sendoak dituen jaia da Magosto, gaztainak eta Ribeiro ardoa dastatuz ospatzen dutena, eta antolatzaileek jai horren esentziaz gozatzera gonbidatu dituzte herritarrak.

200 kilo gaztaina

Galiziatik ekarritako 200 kilo gaztaina erreko dituzte danbolinetan, eta 11:30etik aurrera jateko prest izango dira. Ribeiro ardoa dastatzeko, bestalde, 200 ontzi erosi dituzte. 2,5 euro ordaindu beharko dira ardoa eta gaztainak dastatzeko. Horrez gain, Galiziako produktuak ere jarriko dituzte salgai; besteak beste, likoreak, orujoa, txorizoa, txokolatea, eztia eta ardoa.

5.000 euro banatu ditu Txankakuak urriko ginkanan



ASIER ORBEA

500 euroko bi sari eta 200 euroko hogei banatu ditu Txankakuak urriko ginkanan. Hauek izan dira saridunak: Maria Ferreirok eta Ainhoa Bergarak 500 euroko erosketa-bonua jasoko dute; eta gainerakoek, 200 eurokoa: Esther Ortube, Beatriz, Maria Rosa Vegas, Sandra Pinatxo, Maite Torinos, Marisol Vergel, Agurtzane Epelde, Pilar Etxeberria, Mertxe Ondarza, Vicente Tercer, Nerea Juaristi, Pili Cruz, Isaak Bergaretxe, Gloria Santiago, Nekane Contreras, Paqui Gonzalez, Agustin Santiago, Casi, Gonzalez, Arantza San Martin eta Amaia Ansola.

Jon Aranoa
Guillermo Torres
Elgoibar Albaitaritza
San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
943 740 704 - 639 047 337
Astelehenetik ostiralera:
11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbatak: 11:00 - 13:00
Ikaspaindegi zerbitzua daukagu.
Deitu ordua hartzeko.

PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 986 162

aldaz
hortz klinikak · clínicas dentales
RPS 128/24

Zer dira berehalako kargako inplanteak?

Berehalako karga deritzo inplanteak jartzen diren egun berean hortz-protesia ezartzeari. Prozedura honen bidez, ordu gutxiren buruan, inplante torlojutu eta finko bat jartzen dugu. Gaur egun, kirurgia modu digitalean planifikatzen dugu aurrez, ebakuntza-eguna baino lehen hainbat proba eginez. Kirurgia-egunean bertan, pazienteari beharrezko erauzketak egiten zaizkio, inplanteak ezartzen dira eta behin-behineko protesia torlojutzen da. Ebakuntza ez da oso luzea: ordu pare batean, pazienteak hortzak jarrita doaz etxera. Lehen bisitan egindako probei esker, kirurgia aldez aurretik planifika dezakegu; gehienetan, bigarren hitzordua ebakuntza bera izanik. Lehen topaketa horretan, paziente bakoitzaren beharrak aztertzeaz gain, tratamenduaren bideragarritasuna ebaluatzen dugu. Hori erabakitakoan, prozesua abiarazteko kirurgiarako data finkatu besterik ez da egin behar.

Eskatu zure lehen balorazio-hitzordua!



San Bartolome, 22 - Elgoibar
iyd@dentalaldaz.com
943 366 377

Karakateko Igoeraren 32. ekitaldia bihar

Dena prest dute Karakateko Igoerarako, eta mendia bera udazken koloretan dago

Asier Orbea ELGOIBAR

Bihar, zapatua, jokatuko dute Karakateko Igoera. 11:00etako kanpaiak jotzeaz batera irtengo dira korrikalariak, Kalegoen plazako frontoitik, eta, nork nahi duen bidetik, Karakate puntaraino igoko dira. Lau kilometroko ibilbidean 700 metro inguruko gorako desnibel positiboa gainditu beharko dute. Aurten, estreinakoz, izen ematea aldez aurretik egiteko aukera eman dute antolatzaileek, *Kirolprobak*-en bitartez. Hala ere, egunean bertan ere eman ahal izango da izena, Kalegoen plazan, 09:00etatik 10:00etara. Antolatzaileek 125 parte-hartzaileko muga jarri dute. Iaz, Hasier Murua elgoibartarra eta Irati Ortiz de Anda lezamarra izan ziren azkarrenak. Probako errekorra Iban Muruak ezarri zuen 2017an: 26 minutu eta 17 segundo, hain zuzen ere. Emakumezkoetan Maite Maiorak du errekorra (31.37), 2016an ezarria.



Partaideei ez zaie animorik falta izango. ASIER ORBEA

Uxue Etxeberria Espainiako Txapelketan lehiatuko da

Espainiako Txapelketan lehiatuko dira Eibarko Ipurua taldeko gimnastak

A.O. ELGOIBAR

Ipurua Gimnastika Erritmikoko oinarrizko gazte kategoriako taldea Espainiako Txapelketan lehiatuko da, azaroaren 21ean, Cartagenan (Murtzia, Espainia). Bost taldekidek osatzen dute taldea: Uxue Etxeberriak (Elgoibar), Olatz Vieirak (Ermua), Yuma Otalvarok (Deba), Nikole Aranbarrik (Azkoitia) eta Itziar Alberdik (Bergara). Urriaren hasieran ekin zioten denboraldiari, Madrilen; Carmen Vives torneoan lehiatu ziren. Emaitza onik lortu ez zuten arren, hiru uztaiz eta bi zintaz osatutako ariketa berria estreinatu zuten iaztik elkarrekin ari diren taldekideek. Emaitza hobeak lortu zituzten, gero, Gipuzkoako zein Euskadiko txapelketetan: urrea irabazi zuten Azkoitian, Gipuzkoako Txapelketan, eta zilarra, Leioan, Euskadiko Txapelketan.



Uxue Etxeberria elgoibartarra, ezkerrean, taldekideekin. IPURUA

Adimen artifiziala eta kirol-kudeaketa aztertzeko topaketa

A.O. ELGOIBAR

Elgoibarren egingo dituzte XVI. Udal Kirol Politiken Topaketak, azaroaren 19an, *Adimen artifiziala eta kirol-kudeaketa* izenburupean. Hain zuzen ere, teknologia horren erabilerari eta horrek udal-kirol zerbitzuen kudeaketarekin duen loturari buruz hausnartzeko aukera emango diete parte hartzaileei. "Jardunaldiak galdera argi bati helduko dio: nola pasa daiteke adimen artifiziala kirolean benetan aplikatzera? Horretarako, administrazioko, unibertsitateko, enpresa-munduko eta kirol-munduko ahotsak elkartuko dira, udalerrietako kirol-politikak egiten dituztenek ikuspegi praktikoa eta eguneratua jaso dezaten". Udaletako kirol-arduradunei, kirol-kudeaketako profesionalei, kirol-teknikariei, ikertzaileei eta adimen artifizialak kirolaren arloan dituen aplikazioetan interesa dutenei zuzenduta dago. Herriko Antzokian egingo dute, 08:30etik 15:00etara. Doakoa den arren, aldez aurretik eman behar da izena.

Elosua eta Pol-Pol batuko dituen mendi irteera domekan

A.O. ELGOIBAR

Morkaikok familian egiteko moduko irteera antolatu du, Ikastolarekin eta Herri Eskolarekin lankidetzan; oraingoan, Karakate-Irimo mendilerroan dagoen Pol-Pol (771 metro) gailurrera egingo dute, azaroaren 15ean. "Udazkenean sartu gara, eta pago-basoak kolore ederrez dotoretuta daude. Garaia egokia Irukurutzeta-Elosuan mendi buelta bat egiteko", azaldu dute antolatzaileek. Mintxetako aparkalekuan batuko dira, 09:30ean, eta autoz egingo dute Bergara eta Azkoitia artean dagoen Elosua auzorainoko bidea. Handik, oinez Elosumendi gainera igoko dira, eta gero, Pol-Polera. Bidean dolmen eta ondare megalitiko ugarirekin egingo dute topo; horien artean, Keixetako tumulua. Pol Poleko iturrian indarrak berritu ostean, Elosura itzuliko dira, eta bazkalordurako Elgoibarren izango dira.

Mendaroko Maraca Diablo taldeak kontzertua emango du gaur, barikua, 'Gararock udazkenean' zikloaren barruan

San Agustin aretoan izango da kontzertua, 22:00etan eta doan, eta taberna jarriko dute terrazan

Ainara Argoitia MENDARO

Berezia izango da Maraca Diablok gaur, barikua, Mendaron emango duen kontzertua. Berezia, etxean arituko direlako, herrikide eta betiko lagunen aurrean; eta berezia, aurten hamargarren edizioa izango lukeen jaialdiaren partez antolatu duten *Gararock udazkenean* kontzertu-zikloaren barruan joko dutelako, beren-berea duten proiektuaren baitan. San Agustin aretoan izango da kontzertua, 22:00etan, doan, eta antolatzaileek aurreratu dute gaur ere barra jarriko dutela musika eskolako terrazan, Rudigerren kontzertuan egin zuten moduan. Orduko hartan, Gararock taldekoek eurek jardun zuten terrazan musika jartzen, baina, oraingoan, Ondarra disko-jartzaile mendaroarrak beteko



Maraca Diablo. ALESSANDRA DE SCMIDT

du lan hori. 20:00etan zabalduko dute barra, eta dei berezia egin diete mendaroarrei kontzerturako. "Guk kontzertuetara etortzen diren guztiak hartzen ditugu pozarren; musikazale guztiak ditugu estimuan, baina Gararock sortu bagenuen mendaroarrentzat izan zen, herriko kultura aberasteko. Hori da gure erronka: herriko jendea erakartzea", esan du Ina Iriondok.

Hain justu ere, harena da Maraca Diablo proiektua, lagunen abaroan ondu duena. Ina Iriondoz gain –ahotsa, gitarra eta teklatua–, Rafa Furnier –bateria eta perkusioa–, Josu Iriondo –baxua– eta Ana Perez –ahotsa, sintetizadorea eta theremina– igoko dira gaur oholtzara, eta aitortu dute ilusio handiarekin daudela. Martxoan argitaratu zuten adiskidetasunari eskainitako *Txaskario* diskoko kantuak izango dira kontzertuko kantu-zerrendaren ardatz, baina, jakina, beren aurreko lanetako kantuak ere tartekatuko dituzte, "animatuenak edo, kontzertu bizia eta dinamikoa" egiteko asmoz igoko dira-eta agertokira. Iriondoren arabera, ipurdia eserlekura lotuta izatea zail egiten duten kontzertua izatea nahi lukete gaur gauekoa.

Gaurkoarekin, beste bi

Gaurkoa egindakoan, beste bi kontzertu faltako dira *Gararock udazkenean* zikloa ixteko. Azaroan izango dira biak, ostiraletan: bata, Harat taldearena, azaroaren 20an; eta bestea, Gailu taldearena, azaroaren 27an. Lekua eta ordua, berriz, orain arteko berberak izango dira. San Agustin aretoan eta gaueko hamarretan hasita. Orain arteko beste biak bezala, hurrengoak ere doan izango direla esana dute antolatzaileek.

'Go!azen' telesailaren denboraldi berriko lehen atala, zineman



Aktore taldea. EITB

UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak eta EITBk sinatutako hitzarmenari esker, *Go!azen* telesailaren denboraldi berriko lehen atala ikusteko aukera izango dute Mendaron: domekan, 17:00etan, San Agustinen. *Go!azen 13* telesailaren denboraldi berria azaroaren 20an estreinatuko dute ETB1en, eta atal berriak barikuero ikusi ahal izango dira, 21:00etan. Gainera, edukiak eta atal berriak Makusi plataforma digitalean ere egongo dira ikusgai. Gaur emango dute lehen atala Makusin.

Indarkeria matxistari buruzko 'Somos supervivientes' dokumentala hilaren 16an

Indarra egiteko sortu zuten, "emakumeei askatasunerako bidean laguntzeko"

A.A. MENDARO

Indarkeria matxista ikusaraztеko eta indarkeriarik gabeko gizartea eraikitzen jarraitzeko asmoz, Somos Mas elkarteak sortutako *Somos supervivientes* dokumentala emango du Mendaroko Udalak hilaren 16an, astelehena, udalbatza-aretoan, 18:30ean. Indarkeria matxistatik bizirik atera diren emakumeen kolektiboa da Somos Mas, Zaragozan beren bizitzak berreraikitzeko eta beste emakume batzuei askatasunerako bidean laguntzeko indarra egiteko elkartu direnena.



Dokumentala grabatzen. SOMOS MAS

Testigantzak, oinarri

Angel M. Salok zuzendu du dokumentala, zinemako profesionalen parte-hartze zabalarekin eta Somos Mas elkartearen laguntzarekin. Dokumentalean, indarkeria matxistatik bizirik atera diren emakumeen testigantzak jaso dituzte, bai eta osasun eta psikologia arloko, gizarte zerbitzuetako, hezkuntzako eta Poliziako profesionalenak ere. Dekalogo gisa egituratua dago ikus-entzunezkoa. Indarkeria matxista ahalbidetzen duten botere-harreman desorekatuetan jartzen dute arreta, eta botere harreman horiek indarkeria betikotzeko erabiltzen dituzten mekanismo eta dinamikak aletzen dituzte, azaltzeko horrek guztiak nola eragiten dien emakumeei eta baita haien seme-alabei ere. Baina beste helburu bat ere badu dokumentalak: indarkeria matxista pairatu dutenak biktima huts gisa azaldu ordez, aldaketarako, prebentziorako eta gizartea eraldatzeko eragile aktibo gisa aurkeztea.

Jubilatuen energiak eta bizipozak zipriztindu dute udalbatza aretoa

A.A.

Udalbatza aretoak ezohiko itxura hartu zuen zapatu arratsaldean. Izan ere, Aizpen egitekoa zuten txokolate-jana eta dantzaldia hara aldatu zuten lekuz Udalak eta Lagun Betikoak elkarteak. Hala, osoko bilkuretan alkatea jarri ohi den parean Joseba Barrutia Arno disko-jartzailea aritu zen musika jartzen, eta hilean behingo bilkuretan hutsa egon ohi den aretoa bete egin zuten berrogeitaka jubilatuk –gehienak, emakumeak–. *U* forman jarri zituzten mahaiak, eta aurrean atondu zuten dantzalekua. Eta txokolate beroarekin indarrak hartu ondoren, hantxe jardun zuten dantzan, oraintxe bikoteka eta oraintxe soltean.



Emakume bikote bi dantzan, zapatuko ospakizunean. AINARA ARGOITIA

San Martin, tokiko produktuen eta ohituren erakusleiho

Zapatu honetan, 41 ekoizlek eta hamahiru artisauk osatutako azokarekin ospatuko da San Martin Eguna Ermuan; eta abereen itzulerak, herri-kirol erakustaldiak, 200 lagunetik gora batuko dituen baba-janak, dantzak eta musikak borobilduko dute egun osoko egitaraua

Ander Gomez

Bihar, azaroak 14, Euskal Birusa Elkarteak antolatutako 36. San Martin Azoka egingo dute Ermuan. 11:00etan hasiko da, elikagai eta artisautza postuen irekierarekin. Aurten, 41 ekoizlek jarriko dituzte salgai euren produktuak Orbe Kardinala plazaren inguruan. Ohi bezala, fruta eta barazkiak, ogia, gazta, eztia, sagardoa eta txakolina eramango dituzte, baina baita gozogintza- eta ahate-produktuak ere.

Santiago plazan, berriz, hamahiru artisau egongo dira, bitxiak, arropa, motxilak, xaboiak, kandelak eta eskuz egindako beste hainbat lan erakusten. Gainera, salmentaz gain, lanbide tradizionaletara gerturatzeko aukera emango dute artisauek; tartean, saskigintza eta zapatari-lan erakustaldiak izango dira. Goiko parkean Ermuko lau ikastetxeek –Anaitasuna, Eskolabarri, San Lorenzo eta Ermua BHI– beren azoka propioa izango dute, eta Ermuko Tonbolak ohiko elkartasun-ekimenari eutsiko dio.

Abereak, dantza eta herri-kirolak

Azokaren bereizgarrietako bat izango da, beste behin, baserri-giroa herrigunera eramatea. Iaz ezin izan zituzten abereak erakutsi, dermatosi nodular kutsakorraren hedapena saihesteko abereen kontzentrazioak debekatu zirelako urri bukaeran. Aurten, ordea, Martxoaren 8a plazara bueltatuko dira ardiak, behiak, astoak, txerriak eta hegaztiak. Idi-parea Probalekun izango da ikusgai. Artaldea, berriz, goizean goiz jaitsiko da Berano Txikitik, eta 14:00etan berriro ere zeharkatuko ditu herriguneko kaleak.

Kultur eta kirol emanaldiak eguerdian hasiko dira: Txindurrikoak Orbe Kardinala plazan dantzatuko dira eta Iruñeko Alde Zaharreko Erraldoiek kalejira egingo dute, San Pelayo kaletik abiatuta. Ordu berean, herri-kirol erakustaldia egingo dute Komentukua kalean: aizkoran Irati Astondoa eta Mikel Agirre arituko dira, eta harrian, Izadi Agirre eta Haritz Aranguren. Umeek Kulkiren jolasak izango dituzte San Martin plazan, eta Martxoaren 8an ardi-mozte erakustaldia egongo da.

13:30ean ezagutaraziko dituzte azokako irabazleak, Orbe Kardinala plazako kioskotik. Sarituko dituzten ekoizleen produktuen artean, euskal pastela da aurtengo berritasuna. Horrez gain, saltokirik txukunenari eta bertako komertzioen erakusleiho-lehiaketako irabazleei garaikurrak emango dizkiete.

Errifa, argazki-lehiaketa eta kalabaza-postura

Saltzaileak ez dira sariak eskuratzeko aukera izango duten bakarrak. Herritarrek errifaren zozketan parte hartu ahal izango dute –prezioa, 1 euro–, eta bi sari potolo irabazteko aukerarekin: 400 euro –txerriaren balioa– eta Nekaturren 200 euroko bonua, landetxe batean erabiltzeko.

Azokara baserritar jantzita joaten direnek argazki-lehiaketan parte hartu ahal izango dute, eta Errigorako produktuz osatutako otarrea irabazi. Horretarako, argazkia bidali beharko dute @*euskal_birusa* Instagram kontura, mezu pribatuz, 18:00ak baino lehen. Bakarka zein taldean atera daiteke, eta kalean eta azokako giroa erakutsiz egitea proposatu dute antolatzaileek. Sari-banaketa 19:45ean egingo dute, errifaren zozketarekin batera.

Kalabazaren pisua asmatzeko posturak ere parte-hartzaile asko bilduko ditu. Iaz, 300 apustu baino gehiago egin zituzten, eta beste hainbeste euro jaso zituzten sari kalabazaren pisura gehien hurbildu zirenek.

Baba-jana, larrain dantza eta erromeria

Eguerdiko ekintzen ondoren, herri-bazkaria egingo dute, 15:30ean, Merkatu plazan. Bazkalostean, 17:00 aldera, Txerokiak taldeak girotutako *Ermuan kantuan* saioa egongo da, eta talde berak plazara bueltatzeko kalejira egingo du 19:00etan.

Eguna amaitzeko, larrain dantza egingo dute, 20:00etan, plazan, eta, ondoren, Gauargi taldearen erromeria hasiko da. Hala, San Martin Egunak azokako postuak bisitatzeko eta bapo jan eta edateko aukera eskainiko du goizean, eta kantuz eta dantzaz gozatzekoa arratsaldean eta gauean.



Virginia Urretak eta Ivan Solak asmatu zuten iazko kalabazaren pisua: 11,800 kilo. E.B.



Azokako planoa. NORA GASTON



MARI KARMEN URKIDI
ZAPI-JARTZAILEA

"1989an izan ezik –demaseko euritea izan zen–, urtero jarri dut zapia; ea amari ikasitakoak transmititu eta azoka zapiz –edo txapelaz– betetzeko aukera dugun".



JOKIN TXAPARTEGI
ORE-EGILEA

"Orea egiteko orduan, taloa erosteko sortzen diren ilara luzeek dakarte exijentzia; ea orearen puntua asmatzen dugun: ez siku, ez umel, jendeak gustura jan dezan".



IRATXE ODRIOZOLA
DANTZA IKASTAROKO IRAKASLEA

"Ederto pasatu dugu 'erromerian galduta ez ibiltzeko' Txindurriren dantza-ikastaroan; bihar, landutakoa praktikan jartzea eta disfrutatzea besterik ez zaigu falta".



IÑIGO IZAGIRRE
POSTURA-HARTZAILEA

"Kuadrillako hainbat lagun ibiliko gara postuetan txandak egiten; azken batean, herritar bakoitzak bere harri-koxkortxoa jarri ezean ez dago sanmartinik".



NORA GASTON
KOORDINATZAILEA

"Euskal Birusa ia-ia iazko azokatik ari da lanean, eta bihar ere izango dugu zeregina 400 boluntariook; baina San Martin izanik, festarako tartea ere aterako dugu, noski".

Aitor eta Telmo Hernandez aita-semeak podiumera igo dira Colindresen

Bi txirrindulariak bigarren sailkatu ziren domekan Kantabriako ziklo-krosean


Garazi Mendieta

Colindresen (Kantabria) jokatutako ziklo-kros proban podiumera igo ziren joan den igandean Aitor Hernandez eta Telmo Hernandez ermuarrak. Aita-semeek bigarren postua eskuratu zuten, nork bere kategorian.

Kadeteetan, Telmo Hernandez bigarren helmugaratu zen, irabazlearengandik zortzi segundora; elite sub23 mailako lasterketan, berriz, Aitor Hernandezek bigarren postuan amaitu zuen proba, irabazlearengandik minutu eta hamar segundora.

Podium bikoitza denboraldi hasierako lanaren emaitza izan da. Izan ere, aurten Espainiako Kopako eta nazioarteko probetan lehiatzearen aldeko apustua egin dute biek, Euskal Herriko egutegia hasi aurretik. Galizian, Asturiasen eta Burgosen ere lehiatu dira, eta hainbat probatan lehen hamar sailkatuen artean ibili dira lehian.

Aitor Hernandezek hamazazpi denboraldi daramatza txirrindularitzan elite mailan, eta 150 garaipen baino gehiago ditu palmaresean. Iaz, Euskadiko Txapelketa irabazi zuen, eta denboraldi honetan erronka berriak ditu aurretik. Aurtengo lasterketei dagokienez, euria eta lokatza iristeko gogoz dagoela aitortu du, egoera horretan hobeto moldatzen baitira biak.



Ezkerrean, Telmo Hernandez. A. HERNANDEZ



Ezkerrean, Aitor Hernandez. T. HERNANDEZ

Denboraldiaren erronkak

Datozen asteetan, Kantabriako eta Euskal Herriko probekin jarraituko dute. Domeka honetan hasiko da Euskal Herriko Txapelketa, Zornotzan. Iaz, biek irabazi zuten beren kategorietako sailkapen nagusia, eta aurten ere helburuetako bat izango dute.

Egutegian beste hitzordu garrantzitsu batzuk ere badituzte: azaroaren 27an, Bizkaiko Txapelketa jokatuko dute, Elorrion; abenduaren 20n, Euskadikoa, Lezaman; eta urtarrilaren 10ean, Espainiako Txapelketa, Gijonen.

Oraingoz, hamaika lasterketa egin dituzte, baina denboraldia ez da amaitu: beste hamahiru proba inguru gelditzen zaizkie aurretik. Colindresko podium bikoitzak, beraz, bultzada polita eman die aita-seme ermuarrei denboraldi honetako datozen hitzorduei begira.



Hamazazpi haurrek osatzen dute ziklo-kros taldea. ERMUKO TXIRRINDULARI ELKARTEA

Ziklo-krosak ere batzen ditu Ermuko txirrindulari gazteenak

G.M.

Ermuko Txirrindulari Eskola bete-betean dago ziklo-kros denboraldian. Guztira, hamazazpi haurrek osatzen dute taldea, eta, Bizkaiko hainbat probatan ez ezik, Kantabrian eta Burgosen ere lehiatu dira dagoeneko. Modalitate horren bidez haurrek bizikletaz gozatzen dute, eta, aldi berean, trebetasuna eta abilezia lantzen dituzte.

Entrenamenduak astean bitan egiten dituzte, baina, herrian modalitate horretako txirrindularitzan aritzeko azpiegitura egokirik ez dagoenez, Berrizera jo behar izaten dute askotan.

Errepideko eta mendiko bizikleta

Ziklo-kros denboraldia urtarrilean amaituko da, eta martxoan errepideko txirrindularitzari ekingo diote. Egutegiak errepideko zortzi proba eta BTTko zazpi biltzen ditu. Gainera, urtero Bizkaiko txirrindularitza eskolen lasterketa antolatzen dute Ermuan, 300 haur inguru elkartzen dituen hiri-zirkuituan.

Helduentzako txirrindularitzak ere badu tokia elkartean: 160 bazkidek bizikletaz gozatzen dute elkarrekin, eta aurten hainbat sari lortu dituzte Espainiako proba zikloturistetan, talde ugarienaren kategorian.

Porrotik gabeko boladan daude Errotabarri eta Ermua CD

Ander Gomez

Ermuko kirol-talde nagusiak sasoi betean daude. Lauko Errotabarriko neskek estreinaldi bikaina egin dute Urrezko Ohorezko Mailan. Lehen jardunaldian bakarrik galdu zuten, gol bakarreko aldearekin. Ostean, lau neurketa irabazi zituzten jarraian, seigarren jardunaldian berdindu egin zuten, eta joan den asteburuan beste garaipen bat eskuratu zuten, etxean, Leongo Caja Rural Clebaren aurka (32-21). Emaitza horri esker, gainera, sailkapeneko bigarren postuan kokatu dira.

Ermua CDko mutilek, berriz, ez dute lehiarik galdu eta lehen postuan daude sailkapenean, berdinketa batekin eta zazpi garaipenekin. Azken partidan, gainera, nagusitasunez gailendu ziren: aurkariek bi gol baino ez zituzten egin; ermuarrek, aldiz, zortzi sartu zituzten (8-2), Markel Blancoren *hat trick*-arekin.

Golegile nagusiak

Hala ere, partidako lehen bi golak egin zituen Iker Grande da orain arteko goleatzaile nagusia, bai taldean, bai ligan, zortzi partidatan bederatzi gol sartuta. Errotabarriren kasuan, Nahia Legorburu da taldeko golegile nagusia: zazpi partidatan 27 gol batu ditu.



Iker Grande Casado. ERMUA CD



Nahia Legorburu Goñi. ERROTABARRI

ALBOKA
Abesbatza · Banda · Biolina · Biolontxeloa · Flauta
Gitarra · Gitarra elektrikoa · Gitarra baxua · Musika Hizkuntza · Klarinetea · Panderoa
Perkusioa · Pianoa · Saxofoia · Trikitixa · Tronboia · Tronpeta
MUSIKA ESKOLA
943 17 12 98
albokamusikaeskola@hotmail.com

zermik
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT
www.zermik.com
Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12
ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniaritza-enpresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

MIGUEL



Herritarren parte-hartzea izan da azokaren arrakastaren gakoetako bat. G.M.



Parte-hartze handia izan zuten iazko ekintzek; tartean, dantza ikastaroak. D. VIDAL

4.100 euro bildu dituzte esklerosi anizkoitzaren ikerketaren alde

G.M.

San Pelayo Ikastetxeak antolatutako VI. Azoka Solidarioak 4.100 euro biltzea lortu zuen aurreko asteburuan, esklerosi anizkoitzaren ikerketaren alde. Azaroaren 7an eta 8an egin zuten azoka, Ermuko Merkatu Plazan. Ohikoa Gabonetan egitea bada ere, aurten, logistika arazoengatik, azaroan antolatu dute. Hala ere, iazko emaitza hobetu egin dute: iaz 4.050 euro bildu zituzten eta aurten 50 euro gehiago lortu dituzte.

Antolatzaileak pozik daude emaitzarekin. Urtero aurreko urtean baino diru gehiago biltzea dute erronka, eta aurten ere xedea bete dute. Azoka gainerako urteetan baino lehenago egin izanak herritar guztiengana iristea zaildu zezakeen arren, iaz baino diru gehiago biltzea lortu dute.

Ikerketaren aldeko elkartasuna

Azoka Solidarioa San Pelayo ikastetxeko ikasleen, irakasleen eta, bereziki, guraso elkartearen inplikazioari esker antolatu dute, hilabeteetako prestaketa-lanaren ostean. Besteak beste, bigarren eskuko jostailuak, mozorroak eta eskulanak jarri dituzte salgai, eta zozketak zein saski solidarioen ekimena egin dituzte. Herritarren parte-hartzea eta elkartasuna funtsezkoak izan dira, beste behin, dirua batzeko.

Nagusien Astea ospatuko du Pasialeku Elkarteak, astelehenetik hasita

A.G.

Ermuko jubilatuek hilaren 16an emango diote hasiera Nagusien Astearen lau eguneko egitarauari, 11:00etan, plazan egingo den dantza ikastaroarekin. Ordu berean, eskulanen erakusketa zabalduko dute Lobianon, eta bi egunez egongo da irekita, 11:00etatik 13:00etara goizez eta 18:00etatik 20:00etara arratsaldez. Astelehen goizean petanka txapelketa hasiko dute Valdespinako pistan; eta 18:00etan, Untzaga Jubiletxeko abesbatzak kontzertua emango du elizan.

Martitzenean, 10:30ean, gimnasia egingo dute plazan, eta erakusketak eta petankaren lehiak jarraipena izango dute.


Eguaztenean, berriz, plazako dantza ikastaroaren bigarren saioa egingo dute 11:15ean hasita, eta 18:00etan, jubilatuen kantu taldeak kalejira egingo du herrigunean.

Eguenerako, bi mendi-ibilaldi antolatu dituzte, ginkana eta guzti: lehenengo ibilaldia 08:30ean abiatuko da; bigarrena, 09:00etan. 14:30ean, herri-bazkaria egiteko elkartuko dira guztiak Merkatu Plazan. Bazkariko txartela 7 euroan eskuratu ahal izango dute bazkide direnek Jubilatuen Etxean bertan. Mahaian hestebeteak, haragi gisatua eta postrea izango dituzte; eta ura, ardoa, freskagarria eta ogia otordua laguntzeko.

Margarita Olañeta hil da, 'Eibar' aldizkariko zuzendari ohia

Margarita Olañeta Izagirre zendu zen martitzenean, 95 urte zituela. Ermuan jaio zen, 1931n, eta urte luzez Eibarko kultura eta komunikazio jardueretan parte hartu zuen.

2002an hartu zuen *Eibar* aldizkariaren zuzendaritza, senarraren, Jose Maria Kruzetaren, lekukoa hartuz, eta 2016ra arte aritu zen koordinatzaile eta zuzendari lanetan. SER kateari lotuta zegoen Radio Eibarren ere kolaboratu zuen, politikaren inguruko irrati mahai-inguruetan parte hartuz. Tokiko aktualitateari eta gizarte-gaiei buruzko iritziak emateaz gain, haren ikuspuntua gardentasunez partekatzen zuen entzuleekin.



Margarita Olañeta Izagirre. LAGATAKOA





Igor Agirre alkatearen eta Ainhoa Mugarza zinegotziaren eskutik jaso zituzten sariak. A. GOMEZ



Asier Alegria, idi-parea gidatzen, zapatuan. A.G.

Motxoren idiak, lehenak probalekura ateratzen eta lehenak sailkapenean

Mallabiak 36. Idi-proba Txapelketa hartu zuen hilaren 7an eta 9an

Ander Gomez

Hiruna idi-pare lehiatu ziren egun bakoitzean. Zapatuan, Muruetako Motxorenak izan ziren lehenak, 3 kiloko gain-zamarekin. Asier Alegria bermeotarra eta Inaxio Telleria lasartearra laguntzaile zituztela, fin aritu ziren Etxebarriko 200 kiloko harritik tiraka, eta zeuzkaten 30 minutuetan 48 iltze eta 3 metro eta 10 zentimetroko marka egin zuten.

Lezoko Olatzar Erainkuntzak-en idiak izan ziren bigarren, 81 kiloko gain-zamarekin. Haiek, kontrara, arazoak izan zituzten hasiera-hasieratik. Iñaki Oliden oriotarra eta Telleria laguntzaileek ahaleginak egin zituzten arren, labainkada ugari izan zituzten idiek. Azkenean, 81 kiloko gain-zama zuen harriarekin 36 iltzetara ailegatzea baino ez zuten lortu; behintzat, laurden bat, 2 metro 25 zentimetroko gehigarriarekin.

Gauak aurrera egin ahala, gero eta lagun gehiago batu ziren Mallabia I. pilotalekuko probalekuaren harmailetara. Lehiakideen egoerak, ordea, ez zuen hobera egin. Azkoitiko Ixidro Erretegiaren idiak izan ziren azkenak, 49,5 kiloko gain-zamarekin eta Alegria eta Iñaki Urrutia laukiztarren laguntzarekin. Markarik baxuenarekin itxi zuten zapatu gaueko lehia, justu-justu 36 iltze eginda.

Domekan jarraitu zuen demak, bigarren eta azken jardunaldiarekin. Errezilgo Belamendiren, Lezoko Julen Sarasuaren eta Muruetako Kamiñoko Erretegiaren idiak lehiatu ziren. Asteburuan baino maila hobea erakutsi zuten arren, ez zuten Motxotarrek lortutako markara gerturatzerik izan. Belamendiko idiek, 66 kiloko gain-zamarekin eta Alegria eta Urrutia laguntzaile zituztela, 37 iltze eta erdi, metro bat eta 80 zentimetro egin zituzten; Sarasuaren idiek, 25,5 kilorekin eta Olidenekin eta Telleriarekin, 40 iltze egin zituzten; eta 25,5 kiloko zama zuten Kamiñokoenek, Telleria eta Alegria lagun, 38 iltze, laurden bat eta 30 zentimetro egin zituzten.

Milaka euro, txapelak, garaikurrak eta manta sari

Hala, lehian lehenak izandakoek txapelketako sailkapenean ere lehenengo bukatu zuten. Motxotarrek –Asier Alegria eta Inaxio Telleria laguntzaileekin batera– txapela, manta eta 1.500 euroko diru-saria jaso zuten. Sarasuak eta Kamiñokok osatu zuten podiuma; garaikurra eta 1.300 eta 1.200 euro jaso zituzten, hurrenez hurren. Azkenak izan ziren Belamendi, Olatzar eta Ixidro; 1.000, 900 eta 800 euro jaso zituzten, hurrenez hurren.

Markak

Zapatua

- Motxo: 48 iltze, 3 m, 10 cm
- Olatzar: 36 iltze, ¼, 2 m, 25 cm
- Ixidro: 34 iltze

Domeka

- Belamendi: 37 iltze, ½, 1 m, 80 cm
- Julen Sarasua: 40 iltze
- Kamiñoko: 38 iltze, ¼, 0 m, 30 cm

Mallabiari eta bertako pilotari buruz ikasteko aukera izan zuten zapatuan

Mallabitarrok Eginaren 15. aldia ospatu zuten Berbalagunek, 'Ez esan!' galdera-erantzun jokoaren finalarekin batera

A.G.

Herriaren esentziaren parte handi bat pilota dela, eta hala izaten jarraitzeko bidea duela argi geratu zen zapatuko Mallabitarrok Eginan. Hainbat hizlarik hartu zuten hitza: Koldo Praderak elizpeko txapelketaren berezitasunak kontatu zituen, Estibalitz Gonzalezek antzinako erraketisten bizipenak, Aitor Elordik bere ibilbideari errepasoa egin zion, Itsaso Praderak iraganaz eta orainaz jardun zuen eta Jare Landak eta Naroa Martinezek etorkizunaz, gazteen ikuspegitik.

Ondoren, *Ez esan!* jokoaren irabazleek finala jokatu zuten; berezitasun bezala, bikotekidearekin: Enara Arronategi alabarekin, Maite Unzurrunzaga senarrarekin, Leixuri Solozabal amarekin eta Maribi Carrillo ahizparekin. Pello Mugarzak sortu zituen galderak, Esti Katarain eta Eneritz Aranburu galdera-egile eta epaile lanetan aritu ziren, Rober Rodriguez laguntzaile eta Juanmi Bravo aurkezle. Unzurrunzaga eta Xabier Urkidi izan ziren garaile, baina denek Berbalagunen opari-poltsa jaso zuten sari.



Gonzalez, Martinez, Landa, Pradera, Elordi eta Pradera. JUANMI BRAVO



Ez esan! lehiaketaren hirugarren finaleko partaideak. ESTIBALITZ GONZALEZ

7 Pago lasterketa noiz egingo den iragarri dute

2027an jokatuko den eta Mallabiko mendizaleek gehien espero duten hitzorduak badu data: maiatzaren 22an egingo dute Zazpi Pago Elkarteko kideek antolatutako mendi-lasterketa. Zapatua izango da, eta laugarren aldia ospatuko dute. Probaren inguruko xehetasunak aurrerago emango dituztela jakinarazi dute, baina, momentuz, eguna agendan gordetzeko eskatu diete ohiko parte-hartzaileei.

Iaz, 425 lagun batu zituzten: 200 korrikalari 25 kilometroko ibilbide luzean eta 225, berriz, 16 kilometroko laburrean. Ez dute aurreratu dortsal kopurua handituko ote duten, baina, aurrekoetan bezala, guztiak agortzea izango dute helburu.



Arizaga, Lezarri, Iraolabeitia, Untzeta, Barrenetxe, Obe, Arizaga eta Egotzako baserrietako baserritarrak eta ganaduzaleak, Plaza Barrixan, zapatuan. U.M.Z.

Animalien presentziarekin, beteta dator aurten 30. Gaztañerre Azoka

Bertakoak ez ezik, kanpoan bizi diren soraluzetarrak ere izango dira biharko hitzorduan; elkarte gastronomikoak eta jatetxeak beteta daude, eta etxeetan ere elkartuko dira, familian edo kuadrillan

Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Udazkeneko euriari esker "apur bat hobetuta" dator 30. Gaztañerre Azokarako uzta. Bihar, zapatua, 06:00-06:30ak alderako martxan ibiliko dira baserritarrak produktuak zein animaliak prestatzen, eta 10:00etarako gertu izango dituzte Erregetxeko postuak.

Hiru baserritarrek hornituko dituzte postuok barazkiz, frutaz, ogiz, gozoz eta bestelakoz: Arizagak, Lezarrik eta Ilordok. Beteranoak dira lehen biak, eta pozik hartuko dute Ilordoko gaztea. "Gehiago badatoz, ondo; bestela, pikutara goaz", diote Lezarriko Mari Tere Igartzak eta Arizagako Ezozi Etxeberriak.

Lezarri baserritik eramango dituzte azak, brokoliak, azaloreak, espinakak eta aurtengo azken lekak eta tomateak. Frutei dagokienez, berriz, "orain gorritzen ari diren laranjak", mizpirak, limoiak eta sagarrak, besteak beste; hori bai, sagarrak gutxi, goizegi heldu baitira beroekin. Babak ere izango ditu Igartzak. "Lau klase: gorria, zuria, beltza eta pintoak. Baba, iaz baino gehiago", esan du; kasu horretan, beroak lagunduta. Eta Igartzak izango ditu ere mila loretako eta akazia eztia eta propolia, "semeak batu eta egindakoa"; eta arrautzak ere bai, baina haiek ere gutxi, beroarekin "oiloak ere ipurdia estututa dabiltza eta".

Arizaga baserriko Ezozi Etxebarriak eta familiak, berriz, esandako horiez guztiez aparte, postuan izango dituzte borrajak, xarlotak, arbiak eta patata txinatarrak; eta oparo eramango dituzte erosleek horren gustuko dituzten ogiak eta gozo kontuak.

Azkenik, Ilordo baserrikoak, besteak beste, Irure auzoko kiwiak jarriko ditu salgai.

Elikagai eskaintza aberasten, Euskal Herriko txapeldun izendatu berri den Nagore Martin Egotza baserrikoa izango da, ahuntz-gazta preziatuarekin. "Gazta samurra eta ondua" eramango du azokara.

Deba eta Elgoibar

Etxeko baserritarrekin batera, kanpotarrak ere izango dira; bisitari izanagatik ere, Gaztañerre Azokan ezagun askoak. Batetik, Nagore Dorronsoro debarrak eztia eramango du; eta, bestetik, Lizagasar Sagartokitik sagarretatik eratorritako produktuekin izango dira elgoibartarrak: zukua, ozpina, marmelada, sagar-purea… Azken horiek sagar-jotze erakustaldia egingo dute, antzinako erara, kirikoketa bidez, 11:00etan.

30 animalia pasa

Bestalde, gaixotasunen debeku barik, ganaduzaleak ere jaitsiko dira Gaztañerrera, eta dotore osatuko dute azoka; bakoitzak launa buru eramango ditu.

Behiak eta txahalak jaitsiko dituzte; tudankak eta kasinak Iraolabeitiatik; suitzarrak Barrenetxetik eta Arizagatik; piriniotarrak Osumagainetik; asturiarrak Untzetatik eta limusinak Obetik. Astoak ere izango dira, Iraolaetxebarritik eramandakoak, Iribetik Manex burubeltza eta aharia eta Untzetatik ahuntz azpigorriak eta ardiak ere jaitsiko dituzte. Hain justu, ardiokin, 12:00etan, ardi-mozte erakustaldia egingo du Ipar Arrinda artile-moztaileak. Animalien eskaintza borobiltzeko, hegaztiak ere izango dira ikusgai: Guenetxetxoko antzarak.

Ganaduzaleek kontatu dutenez, herriko baserrietan oraindik eusten diete animaliei, baina hori horrela da euren eginahalarengatik. "Gustatu eta ibili, norberaren satisfaziorako; ze, bestela…". Diote geroago eta zailagoa eta nekezagoa dela animaliak izatea. Adibidez, aurtengo sikatearen ondorioz, mendian ez da belarrik hazi udan, eta udazkeneko eurien ondoren hazi den apurra "indar bakoa" da. "Belarrari kolorea aldatu zaio, baina substantzia" gutxi dauka, eta belar sikua ematen ari zaizkio ganaduari, "garesti asko erositakoa". Aurten horrela segitu beharko dutela diote, gainera, Iraolabeitiako Joseba Laskurainek, Untzetako Igor Larrañagak, Obeko Roman Maiztegik eta Barrenetxeko Oier Cerrejonek. ⟶



Nagore Martin eta Onar Muguruza sariarekin, zapatuan, Tolosan. LAGATAKOA

Euskal Herriko ahuntz-gaztarik onena, Egotzakoa, azokan ere bai

Aitortza handiarekin dator Gaztañerre Azokan egongo den Egotzako ahuntz-gazta, Euskal Herriko ahuntz-gaztarik onena izendatu berria. Zapatuan, azaroak 7, Esneki txapelketan, Euskal Herriko Gazta eta Esnekien V. Azokan egin zioten aitortza Nagore Martinen gaztari. Pasta prentsatutako eta ondutako gazta aurkeztu zuen. Esan zuenez, sariarengatik baino gehiago, "ahuntzari eta ahuntzetatik eratorritako produktuei ematen dien" aitortzarengatik aurkeztu zuen gazta. Aitortzaren ondoren zorion-mezu ugari jaso dituela kontatu du, eta enkargu gehiago ere bai; baina dio orain arte ere ondo asko saldu duela eta ez duela lehenago saltzeko interesik: "Nire ohiko bezeroak gazta barik geratu ez daitezen. Eurei esker nago ni hemen".

Artisauak ere oparo

Osterantzean, eskulangintza-produktu ugari ipiniko dituzte artisauek, haiek ere nahikoa lan eginda. Erregetxean izango dira zumitzez, larruz, egurrez, oihalez... egindako eskulanak. Artisau izango dira Arrate Lizarralde, Charo Fernandez, Edurne Garate, Kristina Albisua, Nuria Muro, Saadia Nasir, Amaia Amor, Lorea Calles eta Angel Garcia. Azken hori, Garcia, berria da, eta modernitatetik joko du haren saltokiak, 3D inprimagailuaz egindako produktuak ipiniko baititu salgai. Kontatu duenez, besteak beste, loreontzi adimentsuak izango dira, berez ureztatzen direnak eta landarearen tenperatura neurtzen dutenak.

Eta salgaien artean izango da argitaratu berri den *Irure* liburua ere, Soraluzeko baserri auzoei buruzko laugarren eta azken liburua, Francis Larrañaga Guridi soraluzetarrak idatzitakoa.

Lehiaketa eta omenaldia

Bestalde, sagardo lehiaketa eta omenaldia izango dira eguerdi parteko ekitaldian.

Sagardo lehiaketan sei baserrik parte hartuko dute: San Martzialek, Barrenetxek, Osumak, Argaratek, Zabaletak eta Bagozkoitiak. Baserritarren txosnan izango da haien sagardoa, 200 bat botila; Barrenetxeko Oier Cerrejonek kontatu duenez, urtero antzeratsu ibiltzen dira kopuruz. Iazko sagardoa da, noski; aurten ez dira hasi, beroaren eraginez sagar oso gutxi dago, eta, agian, aurtengo sagardorik ez da egongo. 12:45eko ekitaldian jakinaraziko dute zein den sagardogile txapelduna, iazko Mikel Oregi *Letu*-ren lekukoa hartzen ahaleginduko dena. Txosnako eskaintza osatzen jatekoa ere izango dute: hirugiharra, txorizoa eta txerri-azpizuna. Gaztainak ere bai, "basurdeek jan ez dituztenak".

Goiburu eta Aldazabal

Omenaldiari dagokionez, Eizagirre baserriko Ana Maria Goiburu Izagirre eta Aldasoro baserriko Jose Antonio Aldazabal Laskurain izango dira omenduak. Haiei agurra egin eta opariak eman ondoren, dantza saioa egingo dute Soraluzeko dantza eskola sortu berriko umeek eta helduek, eta Eneritz Artetxek eta Unai Agirrek bertso saioa egingo dute ekitaldia ixteko.

Azoka 14:00ak arte egongo da zabalik. Hasieran txistulariak eta txalapartariak arituko dira; bukaeran, Galtzagorri txaranga eta 15:00etan, azokako parte-hartzaileek eta antolatzaileek elkarrekin bazkalduko dute.

Jatetxeak eta elkarteak, bete-beteta

Urteak dira Gaztañerre Azoka egun handia dela Soraluzen. Lagun artean edo familian elkartu eta baba-jana egiteko ohitura indartsua da. Aspaldiko lagunak elkartzen dira, kanpoan bizi diren soraluzetar asko herrira bueltatzen dira eta elkarte gastronomikoak eta jatetxeak bete-beteta egoten dira; bada baba-jana egiteko lokal partikularra erabiltzen duenik ere.

Aurten ere halaxe da. Gainera, Txurrukaren faltan, lekua urriagoa da. Batzokian, adibidez, kontatu dute aurtengoa egin barik, datorren urterako ja 30 lagunek eginda dutela erreserba; Itxaropena Erretiratuen Elkartean egundoko itxarote-zerrenda dago; eta, adibidez, Edurtzan bi kuadrilla kabitzen dira, eta urtero dago hura ere beteta.

Elkarteak ere bai


Bestalde, elkarte gastronomikoetan egoera berbera da. Gehienek dute ezarrita data jakin bat Gaztañerre Egunerako izena emateko. Hala, elkarteetako hainbat bazkide, egun horren bezperan, gauerdira arte zain egoten dira izena ematen lehenak izateko. Beste batzuetan, mahaien zozketa egiten dute izena eman dutenen artean.

Herri baba-jana

Eta herri baba-janean errepikatu egiten da erretratua. 160 lagunendako tiketak urriaren 18an (domeka) salgai jarri, eta ordubetean agortu ziren; erosi zutenak, gainera, ordubete lehenago egon ziren Iratxoren kanpoko aldean zain. Horrez aparte, beste 30 lagun geratu ziren itxarote-zerrendan, norbait azken momentuan joan ezinda geratuko den esperantzarekin.

Azkenik, herriko bi hartegiek odolosteak, saiheskia eta bestelakoak saldu eta saldu ari dira. 40 kilo odoloste saldu zituzten iaz Okelian, eta 29 lñarran. Kopuru horien gainetik dabiltza aurten. Aparte, eskaintza bereziak egin dituzte aurten: baba-jana prestatzeko kita.

Txorimalo dotoreak ikusgai



U.M.Z.

Gaur, barikua, azken eguna da Araneko erakusketa aretoan dagoen txorimalo erakusketa ikusteko. Ludotekako HH eta LH4 arteko umeek egin dituzte txorimaloak, Gaztañarre Azokaren testuinguruan. *Lili, Pepe, Lola, Txispitas, Zaloa*... zortzi txorimalo eta udazkeneko apaingarriak. Etxetik eramandako arropa zaharrak eta etxetik zein menditik eramandako ezkurrekin, gaztainekin eta bestelakoekin egin dituzte.

Arte Ederren Museoa bisitatu dute




ANA MAIZTEGI

Martitzenean, eraberritu ondoren, ireki berri den Arte Ederretako Museora irteera egin zuten JendartEKINeko partaideek. "Ikusgarria den atrio zabalean" eman zioten hasiera "oso interesgarria" iritzi zioten bisita gidatuari. Museoa ikusi eta bazkalostea Guggenheim museo inguruetan eman zuten. Datorren astean, Jesus Galarraga aditua izango dute hizlari; *Colon Placentino* hitzaldi irekia egingo du, 10:00etan, Tolarekuan.























Dr Feelgood talde britainiarraren emanaldirako sarrerak agortuta daude. ARGAZKIA: BLUES HOTSAK.

Nazioarteko "inoiz baino puntako talde gehiago" Blues Hotsak jaialdian

Emanaldirik gehienak datorren azaroaren 20tik 22ra egingo dira herrian

Egoitz Unamuno Loidi SORALUZE

Blues Hotsak jaialdiaren zortzigarren edizioa ere bete-betea dator. Aurten ere musika beltza eta bluesa izango dira ardatzak baina kontzertuez gain, literatur solasaldia, ekimen gastronomikoa, bertsolarien parte-hartzea, mendi irteera gidatua eta beste hainbat ekimen ere eskainiko ditu, gaurtik azaroaren 22ra bitartean.

Hain zuzen, gaur egingo da Soraluzetik kanpo eskainiko diren bi kontzertuen artean bigarrena: *Lagunak Sessions*, Kataluniako zazpi musikarik eskainiko dute 19:00etan, Eibarko Coliseo antzokian. Lehen kontzertua joan zen barikuan eman zuen Dani Nel.Lo saxofonista kataluniarrak Elgetako Ozkarbi elkartean, elkarteari "New Orleansen itxura" eman ziona Hasier Larrea kazetariak *Goienan* argitaratutako kronikan esan zuenez.

"Salto kualitatiboa"

Ubane Uzin (Errabal Jazz) antolatzailearen esanetan, aurten, musika jaialdiak "salto kualitatiboa" eman du eta "inoiz baino nazioarteko punta-puntako talde gehiago etorriko dira". Bereziki nabarmentzekoak dira: Dr Feelgood *rhythm&blues* talde ingeles entzutetsua (bariku iluntzean, Antzokian) eta Barrence Whitfield & MFC Chicken, *blues*a eta *rock*a uztartzen dituen talde estatubatuarra (domeka iluntzean, Antzokian). Era berean, aipagarriak dira zapatu arratsaldean eta gauean Antzokian eta Gaztetxean joko duten DeRobert & The Half-Truths talde estatubatuarra *soul & funk* "gordina" jotzen duena eta Sweet Marta & The Blues Shakers kataluniarra, klasiko afroamerikarretan oinarritutako zuzeneko "indartsua" eskaintzen duena.

Euskal musikari dagokionez, aurten ale bakarra izango da, Pettik eta Ana Galarragak azaroaren 19an (osteguna), 19:00etan Antzokian eskainiko duten *Frankestein agurgarria*. Hitzak eta kantua uztartzen dituen errezitaldi musikatua da. Aurrez, astelehenean, solasaldi literarioa egingo dute irakurle klubean.

Domeka eguerdi "berezia"

Domeka eguerdia "berezia" izango da, kaleko musika emanaldiak eta gastronomia uztartuko dituelako. Hala, eguerdiko 12:30ean hasita, The Ubangi Stomp taldeak *rock&roll, rhythm&blues eta boogie-woogi* musika joko du Santa Anan, eta ordubetera, La Perra Blanco andaluziarrak hasiko du emanaldia Plaza Zaharrean. Batean zein bestean, tabernek pintxoak eskainiko dituzte debalde. Gainera, Plaza Zaharrean edari eta jan-edan gehiago izango da aukeran, Palestinarekiko elkartasun taldeak karpan barra ipiniko du-eta.

Familientzako eskaintza

Familiei eta umeei propio zuzendutako ekimenak ere indartu dituzte aurten. Ildo horretan egingo dira azaroaren 22an, domeka goizean: bisita gidatua Dolmenen ibilbidean zehar, eta ostean, bluesaren inguruko musika jai berezia Karakate inguruan; kalean, berriz, goizean *Txiki Blues* izeneko gunea egokituko dute umeentzako puzgarriekin, 11:00etatik 15:00etara bitartean.

Harmonika ikastaroa

Ikastaroek lekua izango dute aurtengo jaialdian ere. Iaz moduan, Joan Paul Cumellas musikari kataluniarrak harmonika ikastaroa emango du, bariku arratsaldean Gaztelekuan, gaztetxoei zuzenduta, eta zapatu goizean, helduei zuzenduta. Jarraian, 11:30ean, musika eskolako konboen txanda izango da, Antzokian bertan.

Bestalde, eguaztenean, 19:15etan, blues zaleek hitzordu berezia izango dute Antzokian, *The Commitments* (Alan Parker) filma proiektatuko da eta.

Elkartasun ekimenak

Azkenik, aipagarria da Blues Hotsak jaialdiak aurten ere zuhaitzak landatzera bideratuko duela sarreretatik jasotako diruaren %10 eta kolektibo zaurgarrietako pertsonei sarbidea erraztuko diela Gertu Kultura ekimenarekin kolaboratuz.

Domeka eguerdian (azaroak 22), tabernek pintxoak eskainiko dituzte debalde

Denboraldiko lehen zuhaitz landaketa, azaroren 21ean

Soraluzeko Baso Biziak elkarteak jakinarazi duenez, azaroaren 21ean egingo dituzte 2026ko lehen zuhaitz landaketak, Lurgaia Fundazioko kideekin batera. Lehen hitzordu horretan, Askabeitiko herri-lurretan landatuko dituzte zuhaitzak, "herri basoak izan daitezen, denon onerako". Ohi dutenez, bertako zuhaitz- eta zuhaixka-espezieak landatuko dituzte, eta iragarri dute goiz amaieran hamaiketakoa partituko dutela landaketara doazenen artean.

Herritarrak landaketan parte hartzera animatu dituzte. Guztia antolatzeko, izena ematea komeni da, hiru egun lehenago gutxienez, deialdiko formularioa beteta. Ekimenera ura eramatea gomendatu dute. Baita praka luzeak eta mendiko edo ur botak ere; eta euria bada, euritakoa eta uretako arropa.

Azaroaren 21earako 09:00etan egin dute hitzordua, San Andresko aparkalekuan, elkarrekin autoan igotzeko.

Itxaropenako karta-joko txapelketarako izen ematea zabalik


Abenduaren 14tik 18ra bitartean, Gabonetako karta-joko txapelketa egingo dute Itxaropena Erretiratuen Elkartean. Mus, tute eta briska txapelketak egingo dituzte, eta zabalik daude hiru txapelketetarako izen-emateak, abenduaren 3ra arte.

Antolatzaileek ohartarazi dutenez, modalitate bakoitzeko, gutxienez, lau bikotek parte hartu behar dute, eta pertsona bakoitzak modalitate batean parte har dezake.

Tutean hamar jokoko partida bat izango dela iragarri dute; musean, berriz, zortzi hamarrekodun hiru jokoko partida bat; eta briskan, hamar jokoko partida bat.







Nerea Loiola idazleak eta Maider Leturiaga ilustratzaileak 'Gramo bat' lana kaleratu dute

Borondatezko abortua du gai nagusi Peru Abarka saria lortu duen album ilustratuak

Izaro Aulestiarte

Gramo bat izeneko album ilustratua ondu dute Nerea Loiola idazle debarrak eta Maider Leturiaga ilustratzaileak. Markina-Xemeingo Udalak antolatutako Peru Abarka lehiaketa irabazi zuen Loiolak idazlan horrekin, apirilean, eta orain eman du argitara Ereinek, Leturiagaren irudiekin jantzia; azaroaren 6an aurkeztu zuten liburua, Donostian.

Borondatezko abortuaz dihardu albumak: "Zorionez, gero eta errelato gehiago ditugu, baina, aldi berean, oraindik isiltasun asko dago, kontatzen ez diren gauzak daude, edo kontatzeko oso leku txiki eta estuak dituztenak. Isiltasun horietako batera hurbiltzeko saiakera da *Gramo bat*", laburbildu du idazleak.

Laugarren haurdunaldia etetea erabaki du emakume batek, eta hiru haurren ama da; istorioak erabaki horren bueltan egingo du bidea, eta irakurlea aurreko, bitarteko eta ondorengo bizipenetara bideratuko du. "Borondatezko aborturako erabaki aske eta propioa da protagonistarena, baina burua eta bihotza ez doaz beti elkarrekin. Dolua pentsatu eta aztertu dut, erruduntasunarekin nahasten denean. Zein min eta zein ez baimendu, zein erabaki baimendu eta zigortu? Hauek izan ditut kontuan idazterakoan", gaineratu du Loiolak.



Zarautzen bizi diren Maider Leturiaga eta Nerea Loiola egileak, liburuarekin. EREIN

'80 amandre' helduentzako ipuin kontaketa saioa, gaur, Ispiluen gelan

I.A.

Dorleta Kortazarrek (Eskoriatza, 1974) helduei zuzendutako *80 amandre* ipuin kontaketa saioa dakar gaur, hilak 13, Agirre jauregiko Ispiluen gelara. 20:00etan hasiko da Udalak *Ispilu(h)ari* kultur programaren baitan antolatutako doako ekitaldia.

80 amandre behar omen dira antzinako emakumeak egungoekin lotzeko; hori zioen, behintzat, Jorge Oteizak; Kortazarrek, ordea, esana du nahikoa izan dituela lau: "Lau, munduan nire txokoa aurkitzeko, lau amandre besterik ez, ipuin bihurtu eta saio honetan elkartu ditudanak". Bada, "ametsak, desioak, lana eta tristurak mototsean kiribildu eta munduari irribarre egiten ikasi duten emakumeen istorioak" kontatuko ditu agertokian.

Etzi, txotxongiloak

Ispiluen gelan bertan, baina igandean, 3 eta 8 urte bitarteko haurrei eta familiei zuzendutako *Erresinolaren kantua* txotxongilo saioa izango da, 17:30ean. Naturako gauzarik xumeenetan aurki daitekeen edertasunaz mintzo da Teatro Gorakada eta Naita Produkzioak ekoiztutako lana. *Ekialde urruneko bionbo aldakor batetik, zuzeneko musikak, txotxongilo eta itzalen batasunak literaturaren klasiko bat kontatuko digute berriro, baina inoiz ez lehen bezala*, dio sinopsiak.



Dorleta Kortazar ipuin kontalaria. GOIENA

'Mindfulness'-a eta oinarrizko informatika ardatz, Arbilen tailerretan

I.A.

Egitarau betea prestatu du Arbilek datozen asteotarako. Izan ere, aurrez iragarriak zituen, besteak beste, sakelakoa erabiltzen ikasteko tailerra –hilaren 10ean, 17an eta 24an–, aurretiazko borondateen gaineko informazio-hitzaldia –azaroaren 13an eta 27an– nahiz Burgosera irteera –hilaren 19an–, eta zerrenda horri *mindfulness*-ari buruzko tailerra eta oinarrizko informatikan trebatzeko ikastaroa gehitu dizkio orain.

Ikigai zentroan egingo dute lehenbizikoa, Eneko Cabelloren gidaritzapean. Bost saio izango ditu *mindfulness* ikastaroak: azaroaren 23an eta 27an eta abenduaren 7an, 11n eta 21ean, 12:00etatik 13:00etara bitartean. Eta, aurreratu dutenez, baliteke ekimenak jarraipena izatea 2027. urtean. Parte hartu nahi dutenek Arbil elkartean egin dezakete izen-ematea, 10 euroan –astelehenetan nahiz asteazkenetan, 11:30etik 13:00etara–. Taldea osatzeko gutxienez zortzi lagun behar dira, eta gehienez, 15.

Prezio berean eskaini dute oinarrizko informatika ikastaroa. Hiru saio egingo dituzte, Arbil elkartean: azaroaren 26an, eta abenduaren 3an eta 10ean, 17:30etik 19:00etara. Zabalik dago izen-ematea, ohiko ordutegian.

Xabi Aburruzaga Trio taldeak kontzertua emango du hilaren 20an

I.A.

Kultur Elkarteak Xabi Aburruzaga Trio taldearen folk kontzertua iragarri du azaroaren 20rako, ostiralez, KulturEkin egitasmoaren barruan. Emanaldia 20:00etan hasiko da eta sarrerak salgai daude jadanik, bost euroan, *labur.eus/aburruzagakulturekin* estekan. Ohi bezala, sarrera guztiak aurrez agortzen ez badira, emanaldia hasi aurretik ere izango dira salgai, aretoan bertan.

Xabi Aburruzaga trikitilari eta konpositore bizkaitarrak iaz kaleratu zuen *Bask*, haren ibilbideko zazpigarren lana, eta, musikariaren esanetan, orain arteko proiekturik osoena da; diskoaren aurkezpen biran dator, Eriz Perezek –gitarra– eta Aitor Uribarrik –perkusioa eta ahotsa– lagunduta.



Xabi Aburruzaga Trio taldea. LAGATAKOA











Iruleak-eko bi bikoteak elkarren aurka arituko dira Gipuzkoako txapelaren bila

Finalerdiak irabazi ondoren, ziurtatuta dago txapela Debara etorriko dela

Nerea Bedialauneta Alkorta

Gipuzkoako Binakako Gomazko Paleta Txapelketako emakumezkoen bigarren mailan lehiatzen ari diren Iruleak Emakume Pilotariak klubeko bi bikoteek finalerako txartela eskuratu dute, finalerdietan garaipena lortu ondoren. Horrenbestez, klub bereko ordezkariek neurtuko dituzte indarrak finalean.

Elkar ondo ezagutzen dute, eta horrek are bereziago egingo du bihar, 11:00etan, Debako Aldats pilotalekuan jokatuko den norgehiagoka. Izan ere, emaitza edozein dela ere, garaikurra etxean geratuko da.



Ezkerretik eskuinera, Mugartegi, Oiartzabal, Rosa eta Aizpuru. N.B.A.

Hutsik egin gabe

Finalerdiak aurreko asteburuan jokatu zituzten, Aldats pilotalekuan, eta etxeko taldeko bi bikoteek ez zuten hutsik egin. Amaia Aizpuruk eta Maialen Rosak osatutako Iruleak 1 taldeak, esaterako, nagusitasunez irabazi zuen Txosteko June Urainen eta Maddi Zubeldiaren aurka: 30-12ko emaitzarekin gailendu ziren ostiral iluntzeko norgehiagokan.

Elaia Oiartzabalek eta Maite Mugartegik osatutako Iruleak 2 bikoteak, berriz, gehiago sufritu behar izan zuen finalerako txartela eskuratzeko. Larunbat goizean, Hernani 1eko Maddi Iriondo eta Lorea Luluagaren aurka neurtu zituzten indarrak, eta lehia estua eta gogorra izan zen hasieratik. Azkenean, debarrak nagusitu ziren, 30-28ko emaitzarekin.

Nogales, onenen artean Gasteizen

Idoia Nogales korrikalari debarra nagusitu zen azaroaren 1ean Gasteizen jokatutako III. Almendraren Konkistan, 5 kilometroko proban. 18.11ko denborarekin, emakumezkoen errekorra ezarri eta sailkapen nagusiko zazpigarren postua eskuratu zuen Mintxeta Atletismo Taldeko kideak.



STUART MACDONALD



Langileak, landarez osatuta zeuden hesiak kentzen. N.B.A.

Biodibertsitatea eta segurtasuna hobetzeko lanak hasi dira zumardian

Landare-hesiak ordezkatu eta kalteak, akatsak eta gaixotasun-zantzuak dituzten zuhaitzak kenduko dituzte

N.B.A.

Eremuaren balio naturala handitu, landaredia berritu eta herritarrentzat zein bisitarientzat ingurune seguruagoa eta atseginagoa sortzeko helburuarekin, lanak abiatu dituzte zumardian. Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuak beteko du egitasmoa, Udalak horretarako eskatutako dirulaguntza baliatuta, eta espazioaren berezko izaera berreskuratzea ere bada asmoa, zumar kopurua handituta.

Proiektua hainbat fasetan garatuko da. Astelehenean hasitakoan, zehazki, bidearen ertzetako landare-hesiak kendu eta egurrezko segurtasun-hesiekin ordezkatuko dituzte. Horiek, gero, landarez estaliko dituzte, eta, guztira, 150 landare inguru erabiliko dituzte; besteak beste, gurbitzak, elorri beltzak, zuhandorrak, erramuak eta *Viburnum* espezietakoak.

25 zuhaitz

Hesiak ordezkatu ondoren, kalteak, akatsak eta gaixotasun-zantzuak dituzten 25 zuhaitz kenduko dituzte; ale gehienak platanondoak dira, baina, tartean, zenbait gaztainondo eta lizar ere moztuko dituzte. Udalak azpimarratu du egungo zuhaitzak kontserbatzea izan dela lehentasuna, eta mozketak beharrezko kasuetara mugatu dituela.

Abenduan, berriz, zuhaitz berriak landatuko dituzte. Aurreikusitako espezieen artean, zumarra (*Ulmus pumila*) eta astigarra (*Acer campestre*) daude, baina bertako zumarrak landatzeko aukera ere aztertuko dute, haien eskuragarritasunaren eta landaketa-eremuaren ezaugarrien arabera.

















IRAGARKI SAILKATUAK

LANA

ESKAERAK

Elgoibar. Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Etxeko langile moduan, orduka edo asteburuetan lan egingo nuke. Titulu soziosanitarioa daukat. 624 34 34 51

Elgoibar. Adinekoak zaintzen lan egingo nuke. Etxeko langile moduan aritzeko prest, bai eta gauak ospitalean pasatzeko ere. 632 29 26 62

Elgoibar. Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Gauez, ospitaleetan, oporretan edo orduka lan egiteko prest. 631 42 56 86

Elgoibar. Asteburuetan adinekoak zainduz lan egingo nuke, esperientzia eta titulu soziosanitarioa ditut. Astean zehar garbiketa lanak egiteko ere prest nintzateke. 659 51 35 78

BESTELAKOAK

Deba. Simaurra hartuko nuke debalde Deban edo inguruan. 688 63 18 03

GARAJEAK

Eibar. Furgoneta gordetzeko garaje itxia hartuko nuke errentan Debabarrenean. Garajeak gutxienez altueran 3 metro eta luzeran 6,5 metro izan behar ditu. 667 95 73 16

ZORION AGURRAK

www.galletiak.com 633 05 04 06 Zure une gozoetan Galletiak zurekin! Zorionak!


Galle-Tiak FABRIK



SORALUZE
Dominica
Zorionak, Dom, 30 urte bete dituzulako. Egun ederra pasa ezazu! Onena opa dizut datozen urteetarako. Maite zaituen mutil-lagunaren partez.




ELGOIBAR
Haizea
Zorionak, Haizea, igandean 7 urte egingo dituzulako. Gurasoen eta ahizparen partez. Izugarri maite zaitugu.



SORALUZE
Kevin
Kevin, familia guztiaren partez, ondo pasa eguna!! Zutaz harro gaude!



SORALUZE
Itziar
Zorionak, tia Itzi! Zorionik beroenak familia guztiaren partetik. Besarkada handi bat eta ondo pasa eguna! Pilo bat maite zaitugu!



DEBA
Eñaut eta Jon
Zorionak, Eñaut eta Jon! Jarraitu ingurukoen egunak alaitzen.



SORALUZE
Nerea
Ondo pasa zure urtebetetzean. Familiakoen partez, muxu asko eta zorionak!





ELGOIBAR

Inaxio Aierdi Larrañaga

Lekunberri exkerra

Maria Angeles Zialtzetaren alarguna

1941-03-09 / 2026-11-07



Eskerrik asko une berezi honetan
jasotako babes eta indar guztiagatik.

Etxekoak

ETXEBERRIA
EHORZKETA-BEILATOKIA
943 741 327 (24 orduz)
635 756 295 - 629 635 203
Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentroetan zerbitzuak.

Barrena eskelak:
zabalkunde handiena Debabarrenean

ESKELAK JARTZEKO:
943 744 112 - 605 706 086 (24 orduz)
eskelak@barrena.eus

Bulegoak:
DEBA: Ifar kalea, 12 - 943 191 383
ELGOIBAR: Aita Agirre plaza, 3 - 943 744 112
ERMUA: Erdikokale Zeharbidea, 2 - 943 179 350
SORALUZE: Errabal, 15 - 943 751 304

EDUKI BABESTUA

Danobatgroupek martxan jarri du Euskararen Nazioarteko Eguneko lehiaketa

'Euskaraz izango gara' lelopean, Danobatgroup kooperatiba taldeak Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko lehiaketa antolatu du aurten ere. Bertan parte hartzen dutenen artean, Izarok otsailaren 27an Bilboko Euskalduna jauregian emango duen kontzerturako bi sarrera zozkatuko dituzte. Duela 26 urtetik ari da Danobatgroup euskara lan-hizkuntza gisa indartzen, eta 'Euskaraz izango gara' leloak argi eta garbi jasotzen du konpromiso hori

Danobatgroup kooperatiba taldeak makina-erremintaren, fabrikazio aurreratuaren eta teknologia industrialaren arloan dihardu. Danobat, Soraluce, Goimek eta Ideko kooperatibek osatzen dute taldea.

Haren jardueraren nazioarteko izaerak hizkuntza askoren erabilera eta kudeaketa eskatzen baditu ere, Danobatgroupek apustu argia egiten du euskararen alde Euskal Herriko lantegietan, langileekin, hornitzaileekin, bezeroekin, ikastetxeekin eta administrazioekin dituen harremanetan.

Konpromiso hori ez da berria. Duela 26 urtetik ari da taldea euskara bere eguneroko jardunean txertatu eta indartzen. Ibilbide horren emaitza dira taldeko kooperatibetan martxan dauden euskara planak eta lortutako Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiriak.

Aurtengo lehiaketak *Euskaraz izango gara* leloa du. Hain zuzen ere, taldearen etorkizunerako ikuspegia eta konpromisoa islatzen ditu, eta bat egiten du gaur egun indarrean dagoen 2025-2028ko Euskararen Plan Estrategikoaren helburuekin.

Euskaraz izango gara Danobatgroupek etorkizunerako irudikatzen duen agertokia da: euskara gero eta presenteago egotea eguneroko lanean, berrikuntzan, ikerketa eta garapenean, teknologia berrietan eta pertsonen arteko harremanetan.

Barne-erabileratik harago, Danobatgroupek euskararekiko duen konpromisoa gizartearekin ere partekatu nahi du. Horregatik, inguruan egiten diren hainbat ekimen sozial eta kulturaletan parte hartzen du, eta horietako askoren sustatzaile ere bada. Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta, aurten ere lehiaketa ireki du taldeak, haren jarduera garatzen duen herrietara eta gizarte osora zabalik.

Lehiaketan parte hartzeko, helbide honetan sartu behar da: *info.danobatgroup.com/euskara/lehiaketa-2026.html*.

Parte hartzeko epea abenduaren 3ra arte egongo da zabalik. Galdera zuzen erantzuten dutenen artean, Izarok 2027ko otsailaren 27an Bilboko Euskalduna jauregian emango duen kontzerturako bi sarrera zozkatuko dituzte.



AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN EGUERDIRAKO.
943 74 41 12 / *barrena@barrena.eus*

OSTIRALA 13

- **DEBA Hitzaldia: 'Aurretiazko borondateak'** Arbil elkartean, 11:00etan. Bi saio: azaroak 13 eta 27. Dokumentua izapidetzeko bi saioetara joan behar da. Plaza mugatuak. Izen-ematea Arbil elkartearen bulegoan egin behar da, astelehen edo asteazkenetan, 11:00etatik 12:30era.
- **ELGOIBAR Odol ateratzea** Txanda hartzeko, lotura honetan: *gotatanta.eus.* Whatsappez: 623 32 84 08. Jubilatuen Biltokian, 16:30ean.
- **DEBA Odol ematea** Ifar kaleko Luzaro eskolan, 16:30ean. Aurrez txanda eskatu behar da, *gotatanta.eus* webgunean edo 623 91 23 03 telefono zenbakira deituta.
- **MENDARO 'Zientzialariak gara!'** Ludotekan, 17:00etan.
- **MENDARO Ekintza librea** Gaztelekuan, 18:00etan.
- **DEBA Hitzaldia: 'Sexu industria: prostituzioa eta sexualizazioaren aurpegi berriak'** Gazte Asanbladaren 26. urteurrenaren harira antolatutako ekitaldia. Debako Kultur Elkartean, 18:00etan.
- **ELGOIBAR 'Querer' telesailari buruzko kafe-tertulia** Haizeak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du. Lilan, 18:30ean.
- **DEBA Ipuin kontaketa saioa: '80 amandre'** Ekitaldia *Ispilu(h)ari* programaren baitan antolatu du Udalak. Agirre jauregiko Ispiluen gelan, 20:00etan.
- **ERMUA Antzerkia: 'El hijo de la cómica'** Sarrera, 15 euro. Ermua Antzokian, 20:30ean.



SORALUZE Gaztañerre Azoka eguna

LARUNBATA 14: 10:00etan, azokaren irekiera txalapartarekin. Ondoren, txistularien eta trikitilarien kalejira. 11:00etan, pintxoak eta sagardo lehiaketa sanandrestarren eskutik. 11:00etan, antzinako erara, sagar-jotze erakustaldia kirikoketa bidez. 11:30ean, Triki-Pandero taldearen kalejira. 12:00etan, ardi-mozte erakustaldia, Ipar Arrinda artile-moztailearen eskutik. 12:45ean, ekitaldia, azokan: dantza saioa, omenaldia, sagardo lehiaketako sari-banaketa eta bertsolariak. Ondoren, Galtzagorri txaranga kalez kale. 15:00etan, baserritarren bazkaria, kiroldegian, eta herri baba-jana, karpan. 19:00etan, erromeria, Emepebost taldearekin, karpan. 23:30ean, erromeria, Fan&Go taldearekin, gaztetxean.

- **MENDARO 'Gararock udazkenean': Maraca Diabloren kontzertua** Sarrera, doan. San Agustin kulturgunean, 22:00etan. 20:00etan taberna zabalduko dute, terrazan.
- **ERMUA Bartzelonara joateko bidaian izena emateko epea zabalik** Gazteria Zerbitzuak antolatuta. Bidaia abenduaren 4etik 8ra egingo da, 2010ko urtarrilaren 1etik 2014ko abenduaren 31ra bitartean jaiotako gazteentzat. Bartzelonako hiriburua, Tarragona eta bertako erromatarren ondarea eta Port Aventura parkea bisitatuko dituzte. Izen-ematea, azaroaren 17ra arte, egoitza elektronikoaren bidez edo *Abiapuntua* bulegoan. Informazio gehiago: *ermua.eus*.

LARUNBATA 14

- **MALLABIA Nesken IX. Frontenis Maratoia –bikoteka–** Eskolako frontoian, 09:00etan.
- **ELGOIBAR Mirariak: magia jaia** Astebururako magia jaialdia antolatu du Alain Zulaika *Niala* magoak. Magia tailerrak egingo ditu Aita Agirre kulturgunean, 6-12 urte bitarteko umeentzat. 10:00etan, 11:10ean eta 12:20an izango dira saioak. Izen-ematea, *alainzulaika.com/mirariak2026* webgunean.
- **ELGOIBAR Nuala elkartearen informazio mahaia** Lekueder parkean, 11:00etan.
- **ELGOIBAR 32. Karakateko Igoera** Morkaiko Mendizale Elkarteak antolatuta. Irteera, Kalegoen plazan, 11:00etan.
- **ITZIAR Bisita gidatua: 'Lastur familian'** Prezioa: 10 euro –12 urtetik beherakoentzat: 5 euro–. Erreserbak: *geoparkea.eus.* Irteera puntua, Lasturko San Nikolas plaza, 11:00etan.
- **ELGOIBAR Magosto jaia** Galiza Etxeak antolatuta. Maalako parkean, 11:30ean.
- **MENDARO Zeramika tailerra** Gaztelekuan, 18:00etan.

IGANDEA 15

- **DEBA-MUTRIKU Mendi irteera bateratua: Aralar** Parte hartzeko beharrezkoa da aurrez izena ematea. Debako autobus geralekuan; Mutrikukoan, 07:35ean.
- **MALLABIA Nesken IX. Frontenis Maratoia –banaka–** Eskolako frontoian, 09:00etan.
- **ELGOIBAR Mendi irteera: Elosua-Pol Pol** Morkaikok eta Elgoibarko ikastetxeek antolatuta. Mintxetan, 09:30ean.
- **ELGOIBAR Mikromagia** Mikromagiaz gozatzeko aukera izango dute ume zein helduek, talde txikietan. Aita Agirre kulturgunean, 10:00etan.
- **DEBA Nesken Binakako XIV. Pala Txapelketa (finalerdiak)** Aldats pilotalekuan, 11:00etan.
- **MENDARO 'Go!azen 13' telesailaren denboraldi berriko lehen atalaren emanaldia** San Agustinen, 17:00etan.
- **DEBA 'Erresinolaren kantua' txotxongilo ikuskizuna** 12 urtetik beherakoentzat. Ekitaldia *Ispilu(h)ari* programaren baitan antolatu du Udalak. Agirre jauregiko Ispiluen gelan, 17:30ean.
- **DEBA Kina jokoa** Arbil elkartean, 17:30ean.
- **MENDARO Mahai-futbol txapelketa** Gaztelekuan, 18:00etan.

ASTELEHENA 16

- **ERMUA Nagusien Astea** 11:00etan, dantza ikastaroa, Orbe Kardinala plazan. 11:00etan, petanka txapelketa, Valdespinako parkean. 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara, eskulanen erakusketa, Lobianon. 18:00etan, Untzagako abesbatzaren kontzertua, elizan.
- **SORALUZE Pentsiodunen Mugimenduak deitutako elkarretaratzea** Plaza Barrixan, 11:45ean.



ERMUA 36. San Martin azoka

LARUNBATA 14: 11:00etan, azokaren irekiera: elikagaien eta artisauen guneak, talo eta saiheski postuak, ikastetxeen postuak, Goiko parkean; Alboka Musika Eskolako trikitilarien eta Bizkaiko Gaiteroen kalejira, herrigunean; artaldearen jaitsiera, 14:00etan, herrigunean; abereen erakusketa, Martxoaren 8a plazan, eta idi-parea, Probalekuan. 12:00etan, Txindurriren dantzak, Iruñeko Alde Zaharreko Erraldoien kalejira, San Pelayotik; herri kirol erakustaldia, Komentukua kalean; umeentzako jolasak Kulkirekin, San Martin plazan; eta ardi-moztea, Martxoaren 8a plazan. 13:30etan, sari-banaketa nagusia: fruta eta ortuariak, gazta, sagardoa, txakolina, ogia, euskal pastela, eta txilar eta mila loretako eztiak; saltokirik txukunena eta erakusleiho lehiaketa. 15:30ean, herri bazkaria, Merkatu plazan: baba-jana eta *Ermuan kantuan*, Txerokiak taldearekin. 19:00etan, Txerokiak taldearen kalejira, plazaraino. 19:45ean, sari-banaketa: errifaren zozketa eta argazki-lehiaketa. 20:00etan, larrain dantza herrikoia, plazan. 20:30ean, erromeria, Gauargi taldearekin, plazan. Oharra: kokalekurik zehaztu ez bada, ekitaldia plazan izango da.

- **DEBA Pentsiodunen mobilizazioa** Foruen plazan, 12:00etan.
- **ERMUA Tailerra: 'Abaniko japoniarra'** Ermuko Udaleko Kultura Sailak antolatuta. 18 urtetik gorakoentzat. 25 euro –22,50 euro deskontuarekin–. Plaza kopuru mugatua. Lobiano Kulturgunean, 18:00etan.
- **ELGOIBAR Hausnarketa taldea** Emakumeek bizi dituzten indarkeriak izango dituzte hizpide, Loredi Salegik gidatuta. Emakumeentzat, doan. Ele bitan izango da. Lila emakumeen etxean, 18:00etan.
- **MENDARO 'Somos supervivientes' dokumentalaren emanaldia** Indarkeria matxista ikusarazteko eta indarkeriarik gabeko gizartea eraikitzeko asmoarekin egindako dokumentala. Udalbatza aretoan, 18:30ean.
- **SORALUZE Euskarazko irakurle taldea: 'Frankenstein agurgarria'** Ainhoa Aldazabalek dinamizatuta. Blues Hotsak jaialdiarekin elkarlanean antolatutako saioa. Kalebarren 8an, 19:00etan.
- **ELGOIBAR Santa Zezilia musika eskola** Musika Eskolako talde instrumentalek kontzertua emango dute. Inazio Bereziartua Musika Eskolan, 19:15etan.
- **MENDARO 'Bingo!'** Azaroaren 16tik 20ra. Ludotekan, 17:00etan.

ASTEARTEA 17

- **ERMUA Nagusien Astea** 10:30ean, sasoian egoteko gimnasia, Orbe Kardinala plazan. 11:00etan, petanka txapelketa, Valdespinako parkean. 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara, eskulanen erakusketa, Lobianon.

- **DEBA Mugikorrak erabiltzen ikasteko tailerra** Arbil Elkarte Sozialaren ekimenez; Mendatako ikasleek gidatuta, 10:30ean, Arbil elkartean. Izen-ematea aurrez, elkartean bertan, astelehenetan eta asteazkenetan, 11:00etatik 12:30era.
- **ERMUA Tailerra: 'Ehuntzen eta hitz egiten'** 65 urtetik gorakoentzat. Udal Liburutegian, 15:30ean.
- **ERMUA Tailerra: 'Ehuntzen eta hitz egiten'** Belaunaldi artekoa. Udal Liburutegian, 16:45ean.
- **ELGOIBAR Paperezko hegoak, gaztetxoen irakurketa kluba** Peru Magdalenaren eskutik. Izenak emanda egon behar du. Gotzon Garate Udal Liburutegian, 17:00etan.
- **ELGOIBAR Literatura sorkuntza tailerra** Haizeak antolatuta eta Jasone Osorok gidatuta. Gaztelaniaz. Lila emakumeen etxean, 18:00etan.
- **ERMUA Santa Zezilia kalejira** Alboka musika eskolatik hasita, 18:00etan.
- **ELGOIBAR Santa Zezilia musika eskola** Musika Eskolako talde instrumentalek kontzertua emango dute. Inazio Bereziartua Musika Eskolan, 19:15ean.

ASTEAZKENA 18

- **SORALUZE Tailerra: 'Teknologia'** JendartEKIN proiektuaren baitan antolatutako tailerra. Kalebarren 8an, 10:00etan.
- **ERMUA Nagusien Astea** 11:00etan, petanka txapelketa, Valdespinako parkean. 11:15ean, dantza ikastaroa, Orbe Kardinala plazan. 18:00etan, Kantu taldearen kalejira, herrigunean.
- **ERMUA Haurrentzako irakurketa kluba: 'Liburuak familian'** 3 eta 5 urte arteko haurrentzat. Euskaraz. Udal liburutegiko hirugarren solairuan, 17:15ean.
- **MENDARO Santa Sezilia - Musikalean jaialdia** Ameikutz Musika Eskolak antolatuta. Trinitaten, 18:00etan.
- **ERMUA Haurrentzako irakurketa kluba: 'Liburuez gozatu'** 6 eta 8 urte arteko haurrentzat. Euskaraz. Udal liburutegiko hirugarren solairuan, 18:15ean.
- **SORALUZE Santa Zezilia eguneko kalejira** Musika Eskolak antolatuta. Santa Ana kalean, 18:30ean.
- **DEBA Hitzaldia: 'Harreman toxikoa ala indarkeriazko harremana?'** Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Egunaren baitan. Kultur Elkartean, 18:30ean.
- **ELGOIBAR Udazkeneko mendi emanaldia** Josu Merino eskalatzaile eta mendizale elgoibartarrak egingo du. Aita Agirre kulturgunean, 19:00etan.
- **ELGOIBAR Kalejira** Santa Zezilia Egunaren harira, trikiti eta pandero kalejira antolatu du Musika Eskolak. Musika Eskolatik abiatuta, 19:00etan.
- **ELGOIBAR Sintetizadore modularrak sortzeko tailerra II** Elgoibarko Musikarien Elkarteak antolatuta. Bigarren saioa DJ Amsiak emango du. Inazio Bereziartua musika eskolan, 19:00etan.
- **ERMUA 'Un capítulo más' gaztelerako irakurketa kluba: 'Trilogía' (Jon Fosse)** Udal Liburutegian, 19:00etan.

OSTEGUNA 19

- **DEBA-ITZIAR Burgosera irteera** Arbil elkartearen ekimenez. Autobusa 07:45ean irtengo da, Itziartik, eta ordu laurden geroago hartuko du jendea Deban, Zumardian. Santa Maria la Real de las Huelgas monasterioa ezagutu, San Lorenzo jatetxean bazkaldu eta itzulera iluntzean egingo dute.
- **ERMUA Nagusien Astea** 08:30ean, ibilaldi luzea, ginkanarekin. 09:00etan, ibilaldi motza, ginkanarekin. 14:30ean, herri bazkaria, Merkatu plazan.
- **ELGOIBAR Topaketa: 'Kirol politikak udalerrian'** Elgoibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta KAITek antolatuta. Herriko Antzokian, 09:00etan.
- **ERMUA 'Entre líneas y emociones' adimen emozionaleko irakurketa kluba: 'La Perla'** Udal Liburutegian, 09:30ean.
- **ELGOIBAR Betisua txarangaren kalejira** Santa Zezilia Egunaren harira antolatutako ekintza. Antolatzailea: Inazio Bereziartua musika eskola. Musika Eskolatik abiatuta, 18:00etan.
- **ELGOIBAR Isiltasunaren eskola** Jose Cruz Igartuak emango du. Kultur Etxean, 19:00etan.
- **SORALUZE Kontzertua: Petti & Ana Galarraga ('Frankenstein Agurgarria')** Antzokian, 19:00etan.

OSTIRALA 20

- **ELGOIBAR Kalejira** Santa Zezilia Egunaren harira, kalejira egingo dute Elgoibar Ikastolako ikasleek, Kalegoen plazatik ikastolaraino. Eguraldiaren arabera, aldaketak egon daitezke. Kalegoen plazan, 08:30ean.
- **MENDARO Odol ateratzeak** *Gotatanta.eus* webgunean sartuta hartu behar da txanda, eta azaroaren 19ko 11:00etatik aurrera, Whatsappez: 632 40 37 95. Ikastolan, 17:00etatik 21:00etara.
- **ERMUA 'Family reading time' haurrentzako irakurketa klub hirueleduna** 0 eta 3 urte arteko haurrentzat. Udal liburutegiko hirugarren solairuan, 17:15ean.
- **DEBA 'Artea, berdintasuna eta tratu onen aldeko tailerra'** Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Egunaren baitan. 8 eta 10 urte arteko umeentzat. Izen-ematea: *berdintasuna@deba.eus.* Erakusketa gelan, 17:30ean.
- **MENDARO 'Martxoak 25 zergatik?'** Gaztelekuan, 18:00etan.
- **ERMUA Erdi Aroko Merkatua** Orbe Kardinala plazan, 18:00etan.
- **ERMUA Haurrentzako irakurketa kluba: 'Entre libros'** 4 eta 8 urte arteko haurrentzat. Gazteleraz. Udal liburutegiko hirugarren solairuan, 18:15ean.
- **ELGOIBAR Dantza emanaldia: 'Verdiniren distira'** Verdini dantza taldeak eskainiko du. Sarrerak*: herrikoantzokia.eus.* Herriko Antzokian, 19:00etan.
- **SORALUZE Kontzertua: DR Feelgood (Blues Hotsak)** Antzokian, 19:00etan.
- **DEBA Xabi Aburruzaga Trioren kontzertua** Eriz Perez, Xabi Aburruzaga eta Aitor Uribarri ariko dira agertokian. Sarrerak, 5 euroan, esteka honetan: *labur.eus/aburruzagakulturekin.* Debako Kultur Elkartean, 20:00etan.
- **ERMUA Santa Zezilia Jaialdia** Musikaren zaindariaren omenez egin ohi den jaialdia, Alboka Musika Eskolako ikasleek eta Txindurri taldeko dantzariek eskainia. Ermua Antzokian, 20:30ean.



MENDARO 'Gararock udazkenean': Harat taldearen kontzertua

OSTIRALA 20: Sarrera doan. San Agustin kulturgunean, 22:00etan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

13 BARIKUA **Soto / H. Burgoa / A. Alcala**
14 ZAPATUA **Garitaonandia / H. Burgoa / I. Ugarte / *I. Lecumberri**
15 DOMEKA **Garitaonandia / H. Burgoa / I. Ugarte**
16 ASTELEHENA **Arriola / Lasuen-Elezgaray / A.M. Baz**
17 MARTITZENA **Fernandez / Lasuen-Elezgaray / M. Alves**
18 EGUAZTENA **Yudego / Lasuen-Elezgaray / I. Lecumberri**
19 EGUENA **Oruesagasti / Lasuen-Elezgaray / A. Alcala**
20 BARIKUA **Barrenetxea / L. Apraiz / I. Ugarte**

*09:00-13:30

2026ko botika ordutegiak, astelehenetik ostiralera:
Deba: 09:00-13:45 / 16:30-19:30
Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-13:00 / 16:00-20:00
Ermua-Mallabia: 09:00-13:30 / 16:30-20:00
Mutriku: 09:00-13:30 / 16:45-20:00
Itziarko botikina: 09:00-12:30

GUARDIA ORDUTEGIAK
Egunez: 09:00-22:00
Gauez: 22:00-09:00
Eibarren urte guztian, egunero: Elortza (Juan Gisasola, 18-Eibar. 943 20 61 00)
Larunbatak:
Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-14:00
Deba-Mutriku: 09:30-13:00
Ermua-Mallabia: 09:00-13:30
Igandeak eta jaiegunak: Deba-Mutriku: 11:00-13:00

FARMAZIAK
DEBA A. ZALDUEGI: Lersundi, 20 - 669 26 22 01
DEBA H. BURGOA: Astillero, 2 - 667 33 88 90
ELGOIBAR ARRIOLA: Santa Ana, 1- 943 74 01 40
ELGOIBAR BARRENETXEA: Errosario, 26 - 943 74 12 77
ELGOIBAR GARITAONANDIA: Uparitzaga, 5 - 943 74 11 77
ELGOIBAR YUDEGO: San Frantzisko, 18 - 943 74 12 93
ERMUA A.M. BAZ: Zearkale 2 - 943 03 17 03
ERMUA M. ALVES: Gipuzkoa etorbidea, 46 - 943 17 26 66
ERMUA A. ALCALA: Zubiaurre, 29 - 943 17 17 54
ERMUA I. LECUMBERRI: Zubiaurre, 9 - 943 17 00 97
ERMUA M.I. UGARTE: Goienkale, 11 - 943 17 05 26
MALLABIA E. ARRONATEGI: Mallazpi z/g - 943 17 24 14
MENDARO FERNANDEZ: Herriko Enparantza, 4 Garagartza - 943 75 61 42
MUTRIKU LASUEN-ELEZGARAY: Txurruka Tenienteak, 3 - 626 61 13 92
MUTRIKU L. APRAIZ: Erdiko kalea, 5 - 630 05 50 97
SORALUZE SOTO: Rekalde, 1 - 943 75 16 38
SORALUZE ORUESAGASTI: Kalebarren, 9 - 943 75 13 84

ZINEMA

ELGOIBAR
HERRIKO ANTZOKIA
'La bola negra'
Ostirala, 13: 19:00
Larunbata, 14: 19:00, 22:15
Igandea, 15: 19:00
Astelehena, 16: 21:00
'La isla olvidada'
Igandea, 15: 16:30
'Yo te creo'
(Ongarri zinekluba)
Asteazkena, 18: 21:00

DEBA
KULTUR ELKARTEA
'Song Sung Blue'
Igandea, 15: 19:00

ERMUA
ERMUA ANTZOKIA
'Tiempos de ilusión'
Larunbata, 14: 19:30
Astelehena, 16: 20:30
'Leones en invierno'
Larunbata, 14: 22:00
Igandea, 15: 19:30
'Balea kantariaren kondaira'
Igandea, 15: 17:00
'Moscas'
(Zine-kluba)
Osteguna, 19: 20:30

SORALUZE
HERRI ANTZOKIA
'The Commitments'
Àsteazkena, 18: 19:00

EIBAR
COLISEO ANTZOKIA
'Como robar un banco'
Larunbata, 14: 17:00, 19:45, 22:30
Igandea, 15: 17:00, 20:00
Astelehena, 16: 19:30
'Ruega por nosotras'
Larunbata, 14: 19:30, 22:30
Igandea, 15: 17:00, 20:00
Astelehena, 16: 19:30
'Sacamantecas' VOSE
Igandea, 15: 20:00
Astelehena, 16: 19:30
'Superthings, filma'
Larunbata, 14: 17:00
Igandea, 15: 17:00

Barrena

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es
PEFC/14-38-00187

2026-11-13
OSTIRALA

AZKEN BERBA

Etxeei eta bizitzei buruz



ANE ASTIAZARAN
EUSKARA IRAKASLEA

Ez da erraza, ez, niretzat etorkizuna baina zuontzat iragana den zerbaiti buruz hitz egitea. Astelehenetik bi egun ditut nik azaroaren 11ko greba orokorra iritsi arte, eta zuok bi egun izan dituzue ajea pasatzeko. Aurretik ditudan egun hauetan edozerk du lekua; dena da posible gaurtik asteazkenera. Zuontzat, ordea, pasa da pasa beharrekoa, eta bakarka eta kolektiboan balora dezakezue hori guztia.

Hala ere, etorkizunak parekatzen gaitu, eta, zergatik ez, datorren astetik aurrerako etorkizuna imajinatzeko gaitasunak. Urteak daramatzagu bizitzak erdigunean jartzeko ahaleginetan, eta, hala ere, greba hau abiapuntuan kokatu behar dugu guztiontzat bizigarria izango diren bizitzak imajinatu, diseinatu eta sortzeko.

Joan Margarit poeta katalanak zioen greba orokorreko egun bateko egunsentia, hori dela askatasuna. Ez gaitezen, ordea, askatasun apur horrekin konformatu. Izan ere, kontu potoloa dugu esku artean. Hitza modurik errazenean banatuz, etxebizitzari buruz ari gara, etxeei eta bizitzei buruz.

Errepresio frankistak jazarri zituen guztiak oroituko dituzte igandean Saturraranen

Saturraran Elkarteak eta Udalak antolatu dute, Oroimen Astearen baitan

Ainara Argoitia MUTRIKU

Gipuzkoan errepresio frankista jasan zuten milaka lagun oroitzeko astea dute Mutrikun, eta, horren baitan, frankistek kartzelara, hiltzera, erbestera edo umiliazio publikora kondenatu zituztenei aitortza egiteko eta haien oroimena bizirik mantentzeko programa osatu dute Saturraran Elkarteak eta Mutrikuko Udalak.

Astelehenean hasi zuten programa, Aranzadi Zientzia Elkarteak Gipuzkoako Foru Aldundiaren enkarguz prestatutako *Frankismoak errepresaliatutako emakumeak* izeneko erakusketa ibiltariarekin, eta igandean borobilduko dute, Saturraranen egingo duten ekitaldiarekin. 1938tik 1944ra emakumeentzako kartzela izan zen inguru hartan elkartuko dira biktimen omenez lore eskaintza egiteko, eta aurten, Alejandro Arrizabalaga Arrieta *Sanjuantxiki* (Mutriku, 1883-1936) gogoratuko dute; lurperatzeko zuloa hari eginarazi ondoren, frankistek kanposantuko hormaren kontra fusilatu zuten mutrikuarra. Hain justu ere, ostegunean, Arantza Ugarte mutrikuarrak *90 urte ondoren* izenburuko hitzaldian oroitu zuen hura.

Astelehenaz geroztik eta igandera arte, ikusgai dago Zabiel kultur etxean frankismoak errepresaliatutako emakumeei eskainitako erakusketa. Dozena bat informazio-panelek eta beste horrenbeste argazkik eta dokumentuk osatzen dute erakusketa, 36ko gerraren gordina gogora ekartzen duten material osagarriarekin batera. Testuinguru historikoa dakar lehenengo panelak; feminismoaren borrokari esker, XX. mendean emakumeek lortu zituzten eskubideen zerrenda, 20ko eta 30eko hamarkadetan faxismoak izan zuen gorakadarekin galtzen joan ziren eskubide haiena. Beste panel batean aipamen berezia egiten diote 1931ko apirilaren 14an Espainiako Estatuan aldarrikatu zen Bigarren Errepublikari, eta ez alferrik. Izan ere, Gobernu forma haren bitartez, urte luzez kaleetan herritarrek borrokatutako zenbait eskubide egia bihurtu ziren; tartean, emakumeei zuzenean eragiten zieten asko: sufragio unibertsala, Dibortzio Legea, abortatzeko eskubidea, prostituzioaren abolizioa, amatasun asegurua, eta adulterioaren legea bertan behera uztea, besteak beste. Konkistatutako eskubide horiek guztiak, baina, kolpetik ezabatu zituen diktadura frankistak.



Herritar bat, Zabiel kultur elkarteko erakusketa ikusten. AINARA ARGOITIA

Errotik erauzi zuen frankismoak gustuko ez zuen dena, eta, horregatik, errepresaliatuei tarte zabal bat eskaini diete erakusketan: Bigarren Errepublikan militantzia politikoa izan eta espazio publikoa okupatu zuten emakumeei eta senideen militantzia politikoagatik errepresioa jasan zuten haiei, bai eta Errepublikan eskubideak izan zituen emakumearen figura gorpuztu zutenei eta sexu-genero disidenteei. Baina izan zen, jakina, frankismoak gogor jazarri zuen guztiaren kontra altxatu zenik, eta erresistentzian ibili ziren haiek guztiek ere badute merezitako lekua erakusketan.



SATURRARAN ELKARTEA

'Sanjuantxiki', oroimenean

Sebastian Arrizabalaga eta Juana Antonia Arrietaren semea zen Alejandro Arrizabalaga *Sanjuantxiki,* 1936ko urriaren 22an frankistek Mutrikuko kanposantuko hormaren kontra fusilatu zutena –*Ahotsak.eus*-en dago haren alaba Maria Doloresen testigantza–. Juana Mugerzarekin zegoen ezkondua eta bost semealaba zituzten. 1932-1933an zinegotzi izan zen Mutrikun, eta etxetik hurbil gaztainak biltzen ari zela hartu zuten atxilo. Kartzelaratu egin zuten gero. Hirugarren egunean, inkomunikatuta zegoela esan zieten senideei. Fusilatu egin zuten. Biharamunean, Zipriana Lete eta Paulina Flores hura lurperatu zuten lekura joan ziren, Jaime Arriola medikuarekin. Orduko ehorzlearen laguntzarekin, *Sanjuantxiki* lurpetik atera, garbitu, hilkutxan sartu eta berriro eman zioten lurra; orduan, baina, hilerri barruan.

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI

AITA TASUNA

